


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Ekonomia eta Enpresa fakultatea

Gradu Amaierako Lana

MENDEBALDEKO ALEMANIAREN “MIRARI
EKONOMIKOA” BIGARREN MUNDU GERRA
ONDOREN

Aurkezlea: Mikel Sáinz Martínez

Zuzentzailea: Ernesto Lopez

Bilbon, 2023ko Ekainaren 20a

AURKIBIDEA

I. SARRERA	4
A. Hitz Gakoak	4
B. Lanaren Helburuak	4
C. Testuinguru Historikoa	5
II. Alemaniaren egoera Bigarren Mundu Gerraren ondoren (1945-1948)	7
A. Bigarren Mundu Gerraren ondorioak Alemaniako ekonomian	7
B. Alemaniaren berreraikuntza eta Marshall Planaren eragina	15
C. Alemaniako Errepublika Federalaren ezarpena eta herrialdearen banaketa	23
III. Alemaniako mirari ekonomikoari lagundu zioten politika ekonomikoak	26
A. Estatuaren eginkizuna Alemaniako ekonomian	26
B. Ezarritako politika ekonomikoak	27
B.1. Erreforma monetarioa eta Deutsche Mark sortzea	27
B.2. Erreforma fiskala eta zergen murrizketa	29
B.3. Merkataritzaren liberalizazioa eta murrizketa ekonomikoak ezabatzea	31
IV. Alemaniako mirari ekonomikoa bultzatu zuten sektoreak eta faktoreak	35
A. Lurra, lana, kapitala eta heziketa mailaren garrantzia	35
B. Urrezko aroan zehar sektore berriak eskuratutako garrantzia	38
C. Industria-produkzioaren gorakada	39
D. Kanpo merkataritzaren ekarpena	44
E. Produktibitatea eta enplegua handitzea	47
F. Populazioa, Migrazioa eta Lan merkatua	51
V. Alemaniako mirari ekonomikoaren eragin soziala	57
A. Herritarren ongizatea areagotzea eta bizi-kalitatea hobetzea	57
B. Alemaniaren lidergoa Europan eta munduan	60
VI. Ondorioak	60
VII. Bibliografia	65

MENDEBALDEKO ALEMANIAREN “MIRARI EKONOMIKOA” BIGARREN MUNDU GERRA ONDOREN

Mikel Sainz Martínez
UPV/EHU

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Alemania suntsituta, okupatuta, bananduta eta egoera ekonomiko kezkarrian geratu zen. Hala ere, zenbait faktoreri esker, inoiz ikusi gabeko hazkunde ekonomiko eta sozialetako bat lortuko zuen, eta, ondorioz, erortzeko zorian zegoen herrialde bat izatetik munduko potentzia handienetako bat izatera igaroko zen. Prozesu horri “alemaniar mirari ekonomikoa” deitzen zaio, eta lan honen bitartez zergatik, nola, eta herrialdeak izandako bilakaera aztertzen saiatuko naiz. Era berean, Alemaniak garai berean beste herrialde batzuekin izan zuten bilakaera alderatuko da.

Después de la segunda guerra mundial Alemania quedó devastada, ocupada, separada y en una situación económica preocupante. Aun así, gracias a diversos factores conseguiría una de las repercusiones tanto económicas, como sociales jamás antes vistas, lo que le haría pasar de ser una país en ruinas a una de las mayores potencias a nivel mundial. Este proceso es conocido como el “milagro económico alemán”, y mediante este trabajo se tratará de explicar las razones por las que se dio, como se dio, y mostrar tanto la evolución como la repercusión que tuvo en el país durante este periodo de recuperación y compararlo con la evolución de otros países durante la misma época.

After World War II, Germany was left devastated, occupied, divided, and in a precarious economic situation. Nevertheless, thanks to various factors, it would achieve unprecedented economic and social repercussions, transforming it from a country in ruins into one of the world's major powers. This process is known as the "German economic miracle," through this work it will be attempted to explain the reasons behind its occurrence, how it unfolded, and showcase both the evolution and impact it had on the country during this period of recovery, comparing it with the development of other countries during the same era.

I.SARRERA

A. Hitz Gakoak

RFA (Alemaniako Errepublika Federala)

RDA (Alemaniako Errepublika Demokratikoa)

DM (Deutsche Mark)

Hazkundera

BPG (Barne Produktu Gordina)

NPG (Nazio Produktu Gordina)

FPO (Faktoreen Produktibitate Osoa)

B. Lanaren helburuak

1. Alemaniar mirari ekonomikoa ematen lagundu zuten arrazoiak eta faktoreak aztertzea, baita aldi horretan ezarritako politika ekonomiko eta horien eraginak ere.
2. Mirari ekonomikoak Alemaniako gizartean eta munduko ekonomian izandako eragina ikertzea, baita Alemaniako gizarte-ongizatearen ereduaren sorrera ere.
3. Alemaniako mirari ekonomikoa Bigarren Mundu Gerraren ondorengo hazkundera beste herrialdeekin alderatuz.
4. Aztertzea mirari ekonomikorik eman zen edo gehiegikeria den.

C. Testuinguru historikoa

Bigarren Mundu Gerra gatazka globala izan zen, 1939 eta 1945 artean, non ardatzaren herrialdeek (Alemania, Italia eta Japonia buru zituzten) Aliatuen aurka borrokatu zuten (Erresuma Batua, Estatu Batuak, Frantzia eta Sobietar Batasuna, besteak beste). Gerraren jatorria Ardatzeko herrialdeen politika hedatzaile eta militaristan zegoen, beraien lurraldea eta eragina zabaldu nahi baitzuten. Gerra 1939ko irailean lehertu zen, Alemaniak Polonia inbaditu zuenean. Hurrengo urteetan, bataila eta irain handiak eman ziren, bai Europan, bai Asian eta Afrikan. Gerran zehar, historiako gertaera tragikoenetako batzuk gertatu ziren, hala nola Holokaustoa, non milioika pertsona, gehienak juduak, jazarri eta hil baitzituen nazien erregimenak. Gainera, gerrak baja militar eta zibil ugari eragin zituen, baita kalte material handiak ere. Azkenean, 1945ean gerra amaitu zen, Ardatzeko indarren porrotarekin eta Alemania eta Japoniaren amore ematearekin. Hurrengo urteetan, Europa eta mundua berreraiki eta berrantolatu ziren; era berean, Gerra Hotzaren hasierarekin mundua elkarren aurka zeuden bi bloketan banatu zen (Cameron, Neal, 2005).

Bigarren Mundu Gerra izugarri suntsitzailea izan zen arren, haren eragina ekoizpen-ahalmenean mugatua izan zen. Garraio-azpiegitura nabarmen hondatu zen; hala ere, errepideak eta zubiak kaltetuta zeudenean, berehala konpon zitezketen. Gauza bera gertatu zen industria-ahalmenarekin eta energia-sorkuntzarekin. Zenbakien konparaketak adierazten dute Europako ekoizpen-kapitala 1947an eta hamar urte lehenago gutxi gorabehera berdina zela (Eichengreen, 2008).

Gerraren kalterik sakonena ekonomikoa eta soziala izan zen. Baliabideak esleitzeko prezio-mekanismoa, neurri handi batean, etenda egon zen, eta gobernuek prezioak arrazionalizatzen eta kontrolatzen hasi ziren. Gobernuek dolarren eta errearen erreserbak agortu zituzten, eta horrek ez zien utzi Estatu Batuetako inportazioak finantzatzen. Bankuek gogor inbertitu behar izan zuten beraien gobernuetako bonuetan, eta orain bake-garaian ez zuten behar adinako baliabiderik ohiko maileguei berriro ekiteko. Horren ondorioz, prezio-sistemaren etorkizuna, finantza-sistema, merkataritza-sistema, eta jabetza pribatuko eskubideen sistema zalantzan zegoen.

Haatik, gerrak sortutako gatazka, sisteman aldaketak egiteko aukera eskeintzen zuen, hau da, aukera bat egitura zaharrak behar berrietara egokitzeko. Politikariek, beraz, armistizioa aprobetxatu nahi izan zuten politika bereziak eta berritzaileak aplikatu ahal izateko, hau da, erakunde zaharrak XX. mendearen hirugarren laurdeneko egoera berrietara egokitu eta Europari beste gerra berri baten leherketaz aldentuz (Eichengreen, 2008).

Herrialde irabazleen buruzagiek ez zuten nahi Gerra Handiaren ondoren Versailleseko Itunean emandako egoera errepikatzea, zeren eta Alemaniarentzat umiliazioa suposatu zuen, eta Europa bigarren Mundu Gerrara eraman zuen azkenean. Hori zela eta, Europaren eta munduaren berreraikuntzari ekiteko, herrialde irabazleen eta galtzaileen arteko kooperazioaren eta elkarlanaren alde egitea erabaki zen, akordio, plan eta erakunde ezberdin asko sortzea ekarri zuena (Eichengreen, 2008).

1945eko ondorengo bost urteetan, Europako herrialde gehienek beraien ekonomiak gerraren gatazkatik berreraikitzea lortu zuten. Ondoren, 1950-1973 epealdian, aurrez inoiz ezagutu gabeko oparotasun aldia eman zen, epealdi horri kapitalismoaren urrezko aroa izenarekin ezagutzen zaio. Zehazki, 1950eko hamarraldiari zilarrezko hamarraldia, eta 1960koa urrezkoa bezala. Hazkunde ekonomikoa garai horretan luzea izan zen eta mundu osora zabaldu zen, Mendebaldeko Alemaniaren kasua harrigarria izan zen, gerra suntsitutako herrialde bat izatetik munduko potentzia bat izatera igaro zelako epealdi oso laburrean (Barciela, 2013).

Laburbilduz, Bigarren Mundu Gerraren ondoren Mendebaldeko Europaren susperraldi ekonomikoa hainbat faktorek bultzatu zuten, hala nola Marshall Plana, Europako herrialdeen arteko lankidetzak, CECA eta EEE bezalako erakunde bidez, soldaten moderazioa eta kanbio tasen egonkortasuna. Faktore horiek elkarrekin lan egin zuten nazioarteko merkataritzan, mendebaldeko Europaren lehiakortasuna hobetzeko, merkataritzaren eta industrializazioaren hazkundera bultzatzeko eta multinazional amerikarren inbertsioa erakartzeko (Comín, 2011).

II. Alemaniaren egoera Bigarren Mundu Gerraren ondoren (1945-1948)

A. Bigarren Mundu Gerraren ondorioak Alemaniako ekonomian

Alemaniak, 1939an 470000 kilometro koadroko azalera zuen, eta, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, lau zatitan banatu zen -amerikarra, frantsesa, ingelesa eta sobietarra-, lehenengo hirurek, denbora baten ondoren bateratu eta Alemaniako Errepublika Federala eraiki zuten, 353.000 kilometro karratu hartzen zituena. Horiei, bosgarren banaketa bat gehitu behar zaie, berlinaren okupazioaz osatua, beste lau eremu aliatutan banatuta zegoena nahiz eta sobietarren eremuaren barnealdean egon (Simón,1990).

Alemanian 1945ean zegoen egoera larrigarria zen; kaos ekonomikoa, baliorik gabeko txanpona, elikagai-eskasia eta etxebizitzak suntsituta; merkantzia-flota, enbargatuta zeukan, eta populazioa egoera dramatikoetan zegoen. Industria-instalazio asko su hartu zuten eta bonbardatuta zeuden, gainera hiririk garrantzitsuenak, %50 eta %80 bitartean suntsituta zeuden. Biztanleria urritu egin zen, eta askok kalean bizi ziren baldintza eskasetan. Alemaniaren kontrolpean zeuden eskualde batzuk galtzea izan zen porrotaren lehen ondorio nabaria: Pomerania, Silesia Garaia eta Behea eta Ekialdeko Prusia. Oro har, egindako azterketek adierazten dute Alemaniaren ekialdean gertatutako suntsipena mendebaldekoa baino txikiagoa izan zela. Oso industrializatuta zeuden eremu batzuk, ordea, erabat suntsitu ziren; esate baterako, Leipzigecko, Dresdeko eta Chemizko hiriak ekialdean. Autoen industriak, makinak eta zurenak izan ziren kaltetuenak (Simón,1990).

Taula 2.1 GERRAKO KALTEAK ETA GERRAONDOKO BERRERAIKUNTZA

	Gerra aurreko zein urtetan izan zen BPGa 1945koaren berdina	Zein urtetan iritsi zen BPGa gerra aurrean izandako mailarik altuenera	BPGaren urteko hazkunde-tasa berreraikuntza-garaian (1945etik 2 zutabeko urtera arte)
ALEMANIA	1908	1951	13,5
AUSTRIA	1886	1951	15,2
BELGIKA	1924	1948	6
DANIMARKA	1936	1946	13,5
ERRESUMA BATUA	INOIZ EZ		
FINLANDIA	1938	1945	
FRANTZIA	1891	1949	19
HOLANDA	1912	1947	39,8
ITALIA	1909	1950	11,2
NORVEGIA	1937	1946	9,7

(Barciela, 2013, 341orr.; Crafts eta Toniolo, 1996,4 orr.).

Taula 2.2 GERRAREN ONDORIOAK (1938=100)

	BPG 1945	BPG Pb 1945
ALEMANIA	83	50,2
AUSTRIA	50	42,7
BELGIKA	111,7	89,7
DANIMARKA	175,6	87,9
ESTATU BATUAK	312,8	190
FINLANDIA	202,9	96,1
FRANTZIA	70,7	57,6
ERRESUMA BATUA	154,5	113,8

HOLANDA	99,7	51,2
ITALIA	91,5	58
JAPON	143,2	55

(Palafox et. al., 1999, 346 orr.; Maddison, 1991, 32 orr.).

Herrialdeek parametro desberdinak dituzte beraien ekonomia neurtzeko eta beste nazio batzuekin alderatzeko. BPG adierazlea Alemaniaren egoera Bigarren Mundu Gerra amaieran aztertzeko lagungarria izan daiteke.

Bigarren Mundu Gerra amaitu zenean, Alemaniaren BPGa nabarmen murriztu zen gerra aurreko mailarekin alderatuta (Ikusi 2.1 Taula). 1945 urtean, Alemaniako BPGa 1938ko BPGaren % 83 zela estimatzen da, hau da, 1945eko BPGa 1908 urtekoaren antzekoa zela. Horrek adierazten du gerrak 35 urtetik gorako atzerapena ekarri zuela Alemaniako ekonomian. Gainerako herrialdeekin konparatuz, solik Frantzia eta Austria gainditzen zuten Alemaniaren egoera. Austriak hain egoera latzean zegoen 1945an Alemaniaren parte izan zelako 1938ko martxotik Bigarren Mundu Gerraren amaiera arte.

BPG pertsona bakoitzarekiko erreparatuz, hau da, herrialde jakin bateko BPGa zati bertan bizi diren biztanleen kopurua eginez. Nazio mailako populazio baten aberastasun-maila islatzen duen datua lortzen da (Santander, 2022). Kasu honetan, Alemaniaren egoera oraindik larriagoa zen (Ikusi 2.2 Taula). 1945 urtean BPGa pertsona bakoitzarekiko erdira jaitsi zen 1938 urtearekin alderatuz. Austrian, aldiz, %42,7ra murriztu zen, biztanleriaren aberastasun mailaren galera izugarria adierazten zuena.

BPG erreferentzia moduan izanez, Alemania eta Austria gerra aurreko mailarik altuenetara itzultzeko 1951 urtera arte itxaron beharko zuten (Ikusi 2.1 Taula), denbora gehien behar izan zuten herrialdeak bilakatuz, Alemaniak 1945 urtetik 1951 urtera 13,5 urteko hazkunde tasa izan zuen BPGan, baina Alemania bitan banatzerakoan eta Mendebaldeko Alemaniak laguntzak jasotzen hasterakoan eta erreformak aplikatzerakoan urteko hazkunde tasa horrek nabarmen hasiko zen.

Garraioei dagokionez, galerak %10 baino handiagoak izan zirela jotzen da, aliatuen helburu nagusia izan zirelako. Gainera, armada alemanak zubiak eta funtsezko beste puntu batzuk apropos suntsitu zituzten erretiratzerakoan gerra amaitzear zegoenean. Gutxi gorabehera, 1.500 zubi suntsitu ziren; horietatik 970 trenbideak ziren. 1946an trenen flota 1936koa baino bi heren txikiagoa zen. Horrekin batera, porrotaren ondorioz, beste herrialde batzuetatik errefuxiatuak eta soldadu alemanak etorri ziren, guztira, zazpi milioi pertsona inguru lekualdatu ziren (Eichengreen, 2008).

Gerra-garaiko suntsipena izugarria izan zen, Alemanian, etxebizitzaren %20a (hiri handietan %50a) oso kaltetuta zeuden eta herrialdeko trenbide-sarearen %90 blokeatuta edo hondatuta zeuden bonben ondorioz. Gerraren amaieran, industria-ekoizpena Belgikan, Frantzian eta Herbehereetan gerra aurreko mailaren %40 besterik ez zen, eta Alemanian eta Italian %20 baino gutxiago. Baina abiapuntu horretatik, ekoizpena bizkor bultzatu ahal izan zen, jendea lanera itzuliz eta ahalegin handia eginez. Garraio eta komunikazio instalazioak konpontzea eta langileek produkzioa azkar handitzeko zuten konpromisoarekin suspertze azkarra lortu zen (Eichengreen, 2008).

Taula 2.3 INDUSTRIA PRODUKZIOA MENDEBALDEKO EUROPAN (1938=100)

	1947	1949	1951	1947-1951 HAZKUNDE PORTZENTUALA
SUEDIA	142	157	172	21
DANIMARKA	119	143	160	35
NORVEGIA	115	135	153	33
ERRESUMA BATUA	110	129	145	32
BELGIKA	106	122	143	33
FRANTZIA	99	122	138	39
HOLANDA	94	127	147	56
ITALIA	93	109	143	54
AUSTRIA	55	114	148	269
MENDEBALDEKO ALEMANIA	34	72	106	312
MARSHALL PLANEAN PARTE HARTU ZUTEN HERRIALDEAK	87	112	135	55
MARSHALL PLANEAN PARTE HARTU ZUTEN HERRIALDEAK (MENDEBALDEKO ALEMANIA IZAN EZIK)	105	130	145	37

(Eichengreen, 2008, 57 orr.; U.S. President, First Report to Congress on the Mutual Security Program, 1953, 249 orr.).

1947an, industria-ekoizpena 1938 baino handiagoa izan zen lurralde gehienetan, Alemania okupatuaren mendebaldeko eremuak, eta Austria alde batera utzita, beraien industria produkzioa mermatua ikusi zelako gerraren eta herrialde okupatzaileek ezarritako mugengatik. Hala ere, urte gutxitan, gainerako herrialdeen ekoizpen hazkunde mailetara hurbiltzea lortu zuten, izugarriko berreskurapena lortuz. Adibidez, Austriaren industria produkzioaren maila 1951 urtean 148koa izan zen 1938 urtea erreferentzia gisa hartuz, Frantziak lortu izandako industria produkzio antzeko maila izan zena 138, hala ere,

mendebaldeko Alemaniak urte batzuk gehiago behar izan zituen mila horietara heltzeko 106 1951 urtean, nahiz eta Mendebaldeko Alemaniak egoera askoz latzago batetik hasi izatea, zehazki, 34 izatetik 1947 urtean (Ikusi 2.3 Taula) (Eichengreen, 2008).

Industriarekin alderatuta, nekazaritzaren ekoizpen maila motelago berreskuratu zen. Soroak goldatu eta landatu egin behar ziren, nekazaritzako lanak bere erritmoa behar zuen. 1946-1947ko negu hotza eta uda lehorraren gorabeherak jasan arren, Europak gerraren aurreko nekazaritza ekoizpen mailen %80 lortu zuen 1947an – 1948an (Eichengreen, 2008).

Baldintzak zailagoak ziren Alemanian gerra aimaitzerakoan, ez zegoen burdinbiderik, telefonorik edo posta zerbitzurik, hilabeteak igaro behar izan ziren oinarrizko zerbitzuak (ura, elektrizitatea, gasa) berreskuratu ahal izateko. Fabriketan produkzio gutxi zegoen, herrialdea lau eremutan banatu zen, potentzia okupatzaile bakoitzak beraien eremuaz gainbegiratuta. Gainera, barne-merkataritza zaila zen, Aliatuek Alemaniaren trenbide sistema ez zutelako konpondu nahi. Sobietarrek, Alemaniako bihotz industrialaren zati handi bat okupatu zutenek, fabrikak eta geratzen ziren trenbideak eraisteko eta gerra-konponketa moduan eramateko aukera ikusi zuten (Eichengreen, 2008).

Beste potentzia okupatzaileen asmoak hasiera batean antzekoak izan ziren, nahiz eta Alemaniako industria desegiteko Morgenthau Plana 1944an baztertu izatea. Frantziako planek, aliatuen okupazio iraunkorra eskatu zuen, Alemania herrialdeko eremu industrial garrantzitsuena (Ruhr-a) bereizi eta nazioarteko kontrolpean jartzeko, eta Sarreko eskualde siderurgikoa Frantziara transferitzeko eskaera egin zuen (Eichengreen, 2008).

1946ko martxoan, aliatuek industria mailan plan bat ezarri zuten, Alemaniako industria-ekoizpena gerraren aurreko mailen erdira murrizteko eta Alemania indargabetzeko. Ez da harrizkoa neurri horiek eragindako ziurgabetasunak industria-jardueretarako baliabideetan inbertitzetik aldendu izatea inbertizaileak.

1947an, Mendebaldeko Alemaniaren industria-ekoizpena gerra aurreko mailen herena baino ez zen Aliatuek mugatu zutelako, hala ere, 1949 urterako industria-ekoizpena gerra aurreko mailaren %72a zen eta 1951 urterako %106a, 1947 eta 1951 bitartean %312ko hazkundera

suposatu zuena Mendebaldeko Alemaniarentzat (Ikusi 2.3 Taula). Nekazaritza-ekoizpena, edo gutxienez merkaturatu eta erregistratu zen zatia, gerraren aurreko mailen %70etik behera erori zen 1946-1947an eta % 58ra, 1947-1948an. 1947ko udaberrian, Alemaniako hirietako eguneroko elikagai-arrazionamendua zortziehun kaloria baino gutxiagora jaitsi ziren. Alemaniako biztanleriaren biziraupena gero eta gehiago Estatu Batuen eta Erresuma Batuen elikagai-laguntzaren mende zegoen (Eichengreen, 2008). Europan espezializatutako erakundeak sortu ziren, biztanleen oinarrizko beharrak asetzeko (elikadura, etxebizitza, arropa eta osasuna). Berreraikuntzarako Nazio Batuen Administrazioa (UNRRA, United Nations Relief and Rehabilitation Administration) 1944an ezarri zen Europako biztanleei laguntza eskaintzeko (Comín, 2011).

Une horretan, Estatu Batuetako buruzagiek konturatu ziren Alemania itotzea ez zuela inolako zentzurik, Ekialdeko mugimendu komunistak gero eta indartsuagoak bilakatzen ari ziren Europan, eta Alemania zegoen egoeran hauen indarrean erortzeko arriskua zegoen. Gainera, Europa berreraikitzeke Alemaniaren laguntza guztiz beharrezkoa izango zen, Europaren bihotza zela eta, herrialde askok beraren berregituraketaz aprobetxatu zitezketen beraien esportazioak handituz, adibidez, Italia, Herbehereak edo Danimarka lehengaien esportazioen bitartez, Alemaniaren industriaren berreraikuntzarako beharrezkoak izango zirenak (Aldcroft, 2001).

Estatu Batuen plana Europa berreraikitzea zen, beraren produktuak erosiko zituen merkaturatuz eta are gehiago aberasteko, horren ondorioz, Alemania eta Europa berreraikitzen laguntzeko hainbat erabaki hartu ziren hortik aurrera. Hala ere, bigarren mundu gerra amaitu baino lehen, potentzia aliatuek batu egin ziren behin baino gehiagotan gerra aimaitzerakoan Alemania eta mundua hartuko zuten bideari buruz eztabaidatzeko. Hala nola, Bretton Woods-eko Konferentzia izan zen bilera horietako garrantzitsuenetariko bat, formalki Nazio Batuen Moneta eta Finantza Konferentzia izenaz ezaguna, Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren moneta- eta finantza-sistema arautzeko, Estatu batuetan, 44 nazio aliatu ezberdinen ordezkariak osatutako bilera izan zen (Suárez, M. et al., 2005).

Bretton Woods-eko negoziazioetatik bi erakunde garrantzitsu sortu ziren 1944an: Nazioarteko Moneta Funtsa (NMF) eta Berreraikuntza eta Garapenerako Nazioarteko Bankua (Munduko

Bankua); 1947an, berriz, hogeita hiru naziok Genovan egindako bilera baten ondoren, Aduanetako Muga-zergei eta Merkataritzari buruzko Akordio Orokorra (GATT) sinatu zen (Aldcroft, 2001). Erakunde horiek Europako ekonomiaren susperraldia finantzatu, nazioarteko diru-sistema egonkortu eta hazkundera sustatzen zuen merkataritza-protokzioismoa murrizten lagundu zuten (Suárez, M. et al., 2005).

Nazioarteko Moneta Funtsak (NMF) funtsezko papera jokatu zuen, Dibisen parekotasuna dolarraren aurrean mantentzeko zailtasunak zituzten herrialdeei lagunduz (dolarrak emanez), eta ordainketa-balantzetan egiturazko desorekak zituzten herrialdeei parekotasunetan (dibisen prezio ofiziala dolarraren aurrean) mantentzen lagunduz, doikuntza zehatzak ahalbidetuz (Comín, 2011).

Berreraikuntza eta Garapenerako Nazioarteko Bankuaren Helburu nagusia, gobernuei maileguak ematea ekonomiak berreraikitzeak. Hasieran, bankuak epe luzeko azpiegitura-proiektuak izan zituen helburu bezala, adibidez, errepideak, aireportuak eta zentral elektrikoak eraikitzea. Aldiz, Aduanetako Muga-zergei eta Merkataritzari buruzko Akordio Orokorra (GATT) murrizketa kuantitatiboak ezabatzeak, muga-zergei beharapena eta multilateralismoa lortzeko, negoziazio-erronden bidez funtzionatu zuen, merkataritza-oztopoak murrizteko eta nazioen arteko merkataritza librea sustatzeko, hazkunde ekonomikoa bultzatzeko eta pobrezia murrizteko balio izan zuen (Aldcroft, 2001).

Laburbilduz, Bretton Woods-eko konferentziaren helburu nagusia gerraosteko berreraikuntza ekonomikoa definitzea zen eta merkatuen irekiera lortzea, horretarako Keynes eta White ekonomialarien ideiak batu ziren. Urrezko patroia itzulketa emango zen, baina orain Dolarra dibisa bihurtu gisa, eta beraz, erreserba modukoa, urrezko ontza batek 35\$ balioko zuen. Nazioarteko Moneta Funtsan parte hartuko zuten herrialdeek beraien dibisak Dolarraren edo Urrearen parera finkatu beharko zuten, eta kanbio tasa finko horiek soilik aldatu ahal izango zitezketen ordainketa-balantzetan desorekak zuzentzeko (Foreman, 1995).

B. Alemaniaren berreraikuntza eta Marshall Planaren eragina

Bigarren Mundu Gerrak hondatuta utzi zuen Europa, bereziki Alemania, gerraren erdigunea izan baitzen. Gatazkaren amaieraren ondoren, kontinentea berreraikitzea eta bakea ezartzea lehentasun bihurtu zen potentzia aliatuentzat, Estatu Batuak buru zituztenentzat, berreraikuntza prozesua aurrera eramateko Marshall Plana antolatu zen. Hala ere, aurreko atalean azalduta dagoen moduan, hasiera batean okupazio indarren helburua Alemaniari eustea eta berreraikitzen ez uztea zen, nahiz eta praktikan Estatu Batuak biztanleriaren gosea saihesteko laguntza ematen ari izatea, sortutako UNRRAREN bitartez. Dena den, laguntza-neurri horiek hutsalak izan ziren gerrak sortutako gatazkarekin konparatuz (Eichengreen, 2008).

Gerraren ondoren ekonomia berrezartzeko giltzarria industria-gaitasuna konpontzea izan zen, hazkunde ekonomikoa eta bizi-mailak altuenak lortzea gobernuek partekatzen zituzten helburuak ziren. Gainera, Estatu Batuetako merkataritza-sistema irekiak beharrezkoa bihurtu zuen Europako herrialdeentzat produktibitatea handitzea. Horregatik, industria-hazkundera obsesio bihurtu zen Europako herrialdeentzat. Bigarren Mundu Gerraren ondorengo lehen urteetan, susperraldi ekonomikoa industria-gaitasunean egindako inbertsioak bultzatu zuen, eta industria astunari eman zitzaion lehentasuna. Dena dela, Europako kapital-ondasunen ekoizpena mugatua zen, potentzia okupatzaileek Alemaniako produkzioan ezarritako murrizketen ondorioz. Gainera, makineria eta funtsezko beste osagai batzuk soilik eros zitezkeen Estatu Batuetako dibisa baliotsuarekin, eta horrek muga gehigarria zekarren.

Gerrak ahuldu egin zuen Europako ordainketa-balantza, herrialdeek atzerriko aktiboak saldu baitzituzten defentsa nazionala finantzatzeko, eta, beraz, orain atzerriko inbertsioetatik diru gutxiago jasotzen zuten. 1947an, Europa dolarren eta errearen erreserbarik gabe geratu ziren, eta beraien funtsak elikagaien inportaziora bideratu behar izan zituzten. Gainera, esportazioek inportazioen zati mugatu bat bakarrik finantzatu zezaketen. Muturreko kasua okupatutako Alemanian eman zen, non kanpo-merkataritza, ikatzaren, zuraren eta txatarraren nahitaezko esportazioez gain, ez baitzen existitzen. Era berean, Europak inportazioetan zuen mendekotasunak eta esportazio ezak haren finantza-egoera kaskarragoa bihurtu zuten. Europako ondasun eta zerbitzuen inportazioak esportazioak baino % 65 gehiago ziren. Beste

hitzekin, kanpoko kontuen oreka berreskuratzeko, Europak erdia baino gehiago handitu beharko lituzke esportazioak (Eichengreen, 2008).

Prezioen kontrolak izan ziren hazkundearen bigarren oztopoa. Gerraren amaieran nagusitu zen eskasiaren testuinguruan, gerraren kontrol asko okertu egin ziren. Orain, eskulana eta lehengaiak zuzentzeko erabili ziren, funtsezko ondasunen ekoizpenari eusteko modu gisa. Soldatak izoztu egin ziren, eskulanaren bidezko lehiak langileak lehentasunezko erabileretatik ez urruntzeko. Gobernu lan-poltsetan zerrendatutako lanak bakarrik hartzen utzi zitzairen langileei. Gainera, espekulazioa saihesteko eta gizartearen egonkortasunari eusteko, agintariek izoztu egin zituzten elikagaien, erregaien, arroparen eta funtsezko beste ondasun batzuen prezioak, eta erosketak arrazionalizatu egin zituzten. Bankuen maileguak eta inbertsioak arautzen zituzten, eta erakunde horiek zor publikoa xurgatzera behartzen zituzten, gordailuak gobernu-bonoetan inbertituz, gerran egin zuten bezala. Era berean, gehiegizko likidezia saihesteko, prezioen mugimendua mugatu zuten. Baina prezioak oreka-mailaren azpitik izoztuta zeuden bitartean, ekoizleek ez lukete pizgarri handirik izango beraien produktuak merkatura eramateko. Adibidez, Nekazariak alea saldu ordez gordetzea erabaki zuten (Eichengreen, 2008).

Arazo horiek larriagoak ziren Alemanian; izan ere, naziek 1936an finkatutako soldatak eta prezioak oinarri izaten jarraitzen zuten okupatzaile aliatuek hamar urte geroago administratutako prezioen egiturarako. Merkatu beltzak bazeuden ere, non prezioak izugarri handiak ziren, legez kanpoko transakzioen arriskuak oraindik ere handiak baitziren okupatutako herrialde batean. 1948an, arrautza batek zortzi reichsmarks balio zituen Hanburgoko merkatu beltzean, eta hori zen, gutxi gorabehera, zortzi orduko egun batean langile bati ordaintzen zitzaion soldata. Prezioen distortsioak okerrera egin zuten gobernuak defizitarekin eta dirua inprimatuz jarraitu ahala, merkatu beltzeko prezioen eta prezio kontrolatuen arteko aldea handituz (Eichengreen, 2008).

Merkatuko eragiketak eta prezioak orekatzeko, gerra amaitu zela onartu behar zen, eta ekonomia berriz ere merkatuko indarren esku uztea (Eichengreen, 2008). Egoera horrek dilema bat sortu zien aliatuei. Alemania Europako ekonomiaren erdigunea zen, alboko

herrialdeak berreskuratzeko eta hazteko behar zituzten kapital-ondasunak Alemaniak zituen, baina guztiz suntsituta zegoen.

1947 urtearen erdialdetik aurrera, aurretik izandako Alemania itotzearen jarrera pixkanaka aldatzen joan zen, eta aurretik proposatutako Morgenthau plana albo batera uztea erabaki zen. Estatu Batuetako Altxorraren Idazkariaren ikuspegiaren arabera, nekazaritzan eta fabrikazio arinean oinarrituta zegoen Alemaniak, eta guztiz beharrezkoa zen Sobietar Batasunaren aurka egin ahal izateko eta Europako etorkizuneko ekonomia oparoari amoldatzeko. Azken batean, Gerra Hotzaren etorrera 1946-1947an AEBko pentsamenduaren aldaketa bat eragin zuen, AEBak Europa berreraiki nahi zuen beraien produktuak erosi ahal zuten merkatu berria eta sendoa eraikitzeko. Horren ondorioz, Frantsesak ere behartu zituen onartzera aliatuek ezin zutela Alemaniako industria desegiten utzi, eta Alemaniaren ekonomia berreraikitzeko beste irtenbide batzuk aurkitu beharko lirатеkeela (Eichengreen, 2008).

Pobreziak eta gabeziek zehaztutako esparru horretan, alderdi komunistek indarra lortzen zuten biztanleriaren artean (Benz, 2005). Komunistek postu garrantzitsuak irabazi zituzten Italiako eta Frantziako gobernuetan. Adibidez, 1945-1946ko hiru hauteskundeetan, Alderdi Komunista Frantsesak botoen %25 baino gehiago irabazi zuen. Alemanian, gerra amaitzerakoan, alderdi politiko handiena, Alderdi Sozialdemokrata (Sozialdemokratische Partei Deutschlands, SPD), industria nazionalizatzearen eta prezio-kontrolak atxikitzearen alde zegoen. Bere buruzagiak, Kurt Schumacherrek, uste zuen gerraren ondorengo aldia gizarte-iraultzakoa izango zela, kapitalismoa indargabetu eta estatu sozialista bat ezartzera eramango zuena (Eichengreen, 2008). Beraz, Mendebaldeko potentzientzat, komunismoaren indar hori saihestea erabateko lehentasun bihurtu zen (Benz, 2005).

Mendebaldeko demokrazien bideragarritasuna bermatzeko eta komunismoaren aurka egiteko, Estatu Batuek laguntza ekonomiko masiboko plan bat jarri zuten abian, Europa berreskuratzeko programa edo “Marshall Plana” bezala ezagutzen dena. Planak Europa berreraikitzen lagundu nahi zuen, baina ez herrialdeka, baizik eta laguntza globalaren bidez. Horrela, onuradunen artean Alemania sartu ahal izan zen, nahiz eta Frantzia horren alde ez egon. Estatu Batuak, irabazi politikoak lortzea espero zuen, baina baita ekonomikoak ere, europarrek Estatu Batuetako inbertsioak babestuko zituztelako (Benz, 2005).

Europaren integrazioa modu bat zen Frantzia eta Europako beste herrialde batzuk Alemaniako industria-ekoizpen mailarekin berriro bat egiteko, eta integrazioaren aurka zeuden haiek, desarmatzeko. Alemania European blokeatuta eta gobernu ezberdinez partekatuko eremuen garapena sustatzeko, Marshall Planak Frantzia bultzatu zuen Alemaniako produkzioaren gain ezarrirako mugak kentzera. Estatu Batuetako laguntza lortzean, Frantziak eta beste irabazle batzuek Alemaniak beste herrialdeetan konponketak egiteko isunak kentzea erabaki zuten, etorkizunean erabakigarria izango zena hazkunde azkarra lortu ahal izateko. Estatu Batuetako funtsak eskuratzeko negoziazioan, Georges Bidault Kanpo kontuen ministroa ere behartu zuen Frantziak Renaniaren eta Ruhr-en autonomietik alde egitera eta okupazio-eremu britainiarren eta estatubatuarren bat-egitea onartzera (Eichengreen, 2008).

Arraroa dirudien arren, Estatu Batuak Sobietar Batasuna Marshall Planean parte hartzera gonbidatu zuten. 1947ko ekainean, Moskuk ordezkari bat bidali zuen Parisera, Vheslav Molotov buru zuela, Frantziako eta Britainia Handiko gobernuetako ordezkariekin biltzeko eta AEBetako eskaintzari erantzun bateratua emateko. Sobietarrak, ordea, erretiratu egin ziren beren ekonomiari buruzko informazioa partekatu beharko zutela eta laguntza zabaltzeko aurretiazko baldintzak onartu beharko zituztela esan zitzaizkion (Eichengreen, 2008).

Marshall Planak alderdi sozialisten eta komunisten arteko zatiketa eragin zuen, edo, gutxienez, zatiketa horretaranzko joerak ustiari zituen. Herrialde sozialistek Marshall Planaren laguntza onartu zuten, aldiz, Komunistek Moskuko jarraibideei kasu eginez laguntza albo batera utzi zuten, mendebaldeko eta ekialdeko Europa guztiz bananduz. Horren ondorioz, Marshall Planak Alemaniako mendebaldeko estatua sortzeko agertokia prestatzen lagundu zuen, 1948an Londresko Sei Potentzien Konferentzian negoziatua (Eichengreen, 2008).

Azkenik 1948an, Trumanek Europako Berreraikuntza abian jartzea lortu zuen. Estatu Batuetako laguntzaren banaketa koordinatzeko, kaltetutako herrialdeek OECE (Ekonomia Lankidetzarako Europako Erakundea) sortu berriko erakundean parte hartu beharko zuten. Mendebaldeko potentziek elkarrekin lan egiten ikasi behar izango zuten, Ipar Amerikako

laguntzari etekina atera nahi izatekotan. Bestalde, baldintza batzuk bete behar izango zituzten. Horien artean, beraien dibisak egonkortzea (Benz, 2005).

Europar, hamasei naziok bat egin zuten Europako Ekonomia Lankidetzarako Erakundea (EEE) eratzeke; erakunde horrek nazio-premiak zenbatesteko eta laguntza kideen artean banatzeko lanak egiten zituen, eta, aldi berean, plan ekonomiko nazionalen konpentsazio-etxe gisa jokatzeko zuen, herrialdeek beraien helburuen aurka lan egin ez zezaten (Eichengreen, 2008).

Taula 2.4 ERP (European Recovery Program) Funtsen banaketa herrialde kideen artean (1948ko apiriletik 1951ko ekainera)

	Milioi Dolarretan
Erresuma Batua	2800
Frantzia	2400
Alemania (EF)	1300
Italia	1250
Holanda	1000
Austria	600
Belgika eta Luxenburgo	550
Grezia	520
Danimarka	300
Norvegia	250
Irlanda	150
Turkia	150
Suedia	120
Portugal	50
Trieste	35
Islandia	25

Guztira	11.500
---------	--------

(Barciela, 2013, 347 orr.; Carreras, 2003, 388 orr.).

Oharra: Guzti horretan ez dira sartzen, pleitak, administrazio gastuak, ERP hasi aurreko laguntza humanitarioa eta erakunde multilateralei -esate baterako, OBERi- emandako funtsak. Horiek sartuta hamairu mila miloi egiten dute guztira.

Erresuma Batuak irabazi handienak lortu zituen Marshall Planaren bitartez, Washingtonek laguntza totalaren laurdena inguru eman baitzion (Ikusi 2.4 taula). Aldiz, Frantziak, 2400 milioi jaso zituen, industria-ekipoak erosteko erabili zituen jasotako funtsak, atzerapen teknologikoa gainditzeko.

Funts horiei esker (11.500 milioi dolar inguru 1948 eta 1951 artean), Europaren berreraikuntzarako prozesua azkartzea lortu zen. Lau urteetan, produkzioak gerra aurreko maila berreskuratu zuen Eropako herrialde askotan.

Laguntza horietatik, sortu berriko Alemaniako Errepublika Federalak (RFA) 1.300 milioi dolar inguru lortu zituen (Ikusi 2.4 Taula). Horrela, Alemaniako alderdi ez-komunista izan zen amerikarren eskuetatik diru gehien jaso zuen Europako hirugarren herrialdea.

Taula 2.5 ERP (European Recovery Program) Funtsen banaketa herrialde kideen artean (1948ko apiriletik 1951ko ekainera)

	1950eko BPGaren ehuneko
Erresuma Batua	7,2
Frantzia	9,2
Alemania (EF)	5,1
Italia	8,5
Holanda	17,2
Austria	20,3
Belgika eta Luxenburgo	9,8
Grezia	27,7

Danimarka	8,5
Norvegia	7,8
Irlanda	12

(Barciela, 2013, 347.; Carreras, 2003, 388 orr.).

Hala ere, Alemaniaren BPG erreferentzia moduan hartzen badugu, Marshall Planak ekarpen erlatiboki txikia egin zion, 1950eko BPGaren %5,1a (Ikusi 2.5 taula). Aldiz, proportzionalki Herbehereek, Greziak eta Austriak izan ziren laguntza gehien jaso zituzten herrialdeak, berien BPGaren %17,2, %27,7 eta %20,3 suposatu zuelako (Ikusi 2.5 taula). Era berean, Erresuma Batuak eta Frantziak Mendebaldeko Alemaniak baino diru kopuru handiagoa jaso zuten, eta beraien BPGari ekarpen handiagoa suposatu zuen, %7,2 eta %9,2 izanez.

Taula 2.6 Estatu Batuek mendebaldeko Europari emandako laguntza, milioi dolarretan (1947-1955)

	Laguntza Militarra	Laguntza Ekonomikoa		
		Dohain emaitzak	Epe luzerako maileguak	Guztira
1947	43	672	3.737	4.409
1948	254	2.866	1.213	4.079
1949	170	3.951	503	4.454
1950	463	2.775	180	2.955
1951	1.112	2.317	84	2.401
1952	2.151	1.453	453	1.906
1953	3.435	1.138	172	1.310
1954	2.313	1.018	105	1.123
1955	1.593	800	74	874
GUZTIRA	11.534	16.990	6.521	23.511

(Barciela, 2013, 347.; Niveau, 1968, 345orr.).

Europaren berreraikuntzarako emandako laguntza totala kontuan hartuz (Marshall plana eta gainerako laguntzak barneratuz), hasieran, AEBetako laguntzaren zati handi bat dohaintzen eta maileguen bidez eman zen (Ikusi 2.6 taula). Baina ekialdeko herrialdeekin tirabirak areagotzen hasi zirenean, eta gerra hotza hasi zenean, laguntza militarrek handitu egin ziren. Marshall Planaren laguntza, neurri handi batean, lehengaiak eta makineria erosteko inbertitu zen, batez ere Estatu Batuetatik inportatuta. Herrialdeen banku zentralek funtsak banatzen zituzten, inbertsio publikoak finantzatzeko edo gerran zehar sortu izan zituzten zorrak gutxitzeko.

Marshall Planaren laguntzak nahiz eta Mendebaldeko Alemaniaren BPGan ekarpen oso handia suposatu ez izatea (1950eko BPGaren %5,1), ezinbestekoa izan zen herrialdea berriro abian jartzeko. Marshall Planak horrela konpondu zuen inportazioak ordaindu ahal izateko lehenengoz esportatu behar izatearen dilema, Alemaniak laguntza ekonomikoa jaso barik ez zelako gai inportazioak lortzeko, ondoren materialak eta makineria produzitu eta azkenik fabrikatutakoa esportatu ahal izateko. Inbertsioak Europako hazkunde-estrategiari sostengua eman zion, eta inbertsiorako finantzaketa-beharra elkartu zuen, bizi-miala altuagoa sortuz.

Gainera, Marshall Planak merkatua berrezartzeko pizgarriak eman zituen. Amerikako laguntza onartu zuten herrialdeek alde biko itunak sinatu zituzten Estatu Batuekin, prezioak desarautzeko, kanbio-tasak egonkortzeko eta aurrekontuak orekatzeko. Era berean, merkatu funtzionaleko ekonomiarako baldintzak martxan jartzeko konpromisoa hartu behar izan zuten. Horrek jabetza-eskubideei buruzko ziurgabetasuna murriztu zuen, inbertsioa eta ekimena sustatuz.

Marshall Planak ere lagundu zien gobernuei prezioak desarautzen eta prezioen mekanismoaren funtzionamendua berrezartzen, inflazio-presioa murriztean. Aurrekontua orekatzeko eta diru-finantzaketaren ondoriozko presioa murrizteko neurririk ez balego, desarautzeak inflazioa besterik ez luke ekarriko.

Laburbilduz, Marshall planaren laguntzak zuzenean ez zuten Alemaniaren “mirari ekonomikoa” eragin, baina Europako gainerako herrialdeek Mendebaldeko Alemaniari berriro ere kontuan hartzea eragin zuen, berreraikuntzarako erakundeetan eta merkataritza

truke berrietan parte hartzen uzten, Mendebaldeko Alemaniaren ekonomiari lehenengo bultzada emanaz, inportazio eta esportazioen harteko gaztazka zuzentzen eta gerra osteko isunen zati handia barkatzen. Beraz, Marshall planaren laguntzek Mendebaldeko Alemaniari “mirari ekonomikorantz” bideratzeko esanguratsua izan zela adieraz daiteke.

C.Herrialdearen banaketa eta Alemaniako Errepublika Federalaren ezarpena

Alemania banatzeko erabakia ez zen egun batetik bestera hartu, gerra amaitu baino lehenago Alemaniaren etorkizuneko egoera jadanik aurre erabakita zegoen. 1945eko otsailaren 4tik 11ra, "Hiru Handiak" Yaltan bildu ziren, Krimeako penintsulan: Franklin Delano Roosevelt presidente estatubatuarra, Winston Churchill lehen ministro britainiarra eta Joseph Stalin sobietarra. Bilera hartan, Europaren etorkizuna erabaki beharko zen, eta Alemaniarekin nola jokatu beraren porrotaren ondoren, baina desadostasun ugari sortu ziren, geroago Gerra Hotza abian jarriko zuena, mendebaldeko blokearen eta ekialdeko blokearen artean.

Yaltan, Stalin batez ere ekialdeko eta hego-ekialdeko Europa hein handi batean Sobietar Batasunarentzat boterea lortzeaz arduratu zen. Gainera, Stalinek Alemaniari ezarri beharreko konponketen zenbatekoa eta SESBek jasoko zuen zatia zehaztu nahi zituen. Guztira, 20 mila milioi dolar proposatu zituen Stalinek, eta horietatik 10 mila milioi dolar eskatu zituen Sobietar Batasunarentzat (Benz, 2005).


Otsailaren 5an Stalin izan zen bileraren buru nagusia, non Alemaniaren banaketa izan zen eztabaida nagusia. Estatu batuko eta Britaina handiko ordezkariak ez zuten nahi Alemaniari neurrigabeko isun bat ezartzea, zeren eta Gerra Handiaren ondoren Versailleseko Ituna porrot bat izan zen, eta Europa bigarren Mundu Gerrara eraman zuen azkenean, Alemaniarentzat umiliazioa izan ondoren (National Geographic, d.g.).

Azkenean, akordio batera heldu ziren, Aliatuek Alemania desmilitarizatzea eta Sobietar Batasunak, Estatu Batuek, Erresuma Batuak eta Frantziak kontrolatutako lau okupazio-eremutan banatzea erabaki zuten. Beste puntu garrantzitsu bat nazioarteko auzitegia sortzea izan zen. Auzitegi hori gerrako kriminal nazirik garrantzitsuenak epaitu beharko zituen, Alemaniako Nüremberg hirian egingo zena (National Geographic, d.g.).

1945eko uztailaren 17tik abuztuaren 2ra egin zen Potsdam-en konferentzia, Berlineko kanpoaldean. Yaltako konferentzian parte hartu zuen Estatu Batuetako presidentea aldatu egin zen (Roosevelt hil zelako, eta Trumanek ordeztu zuen). Era berean, Churchillek, hitzaldia hasita zegoenean, Clement Attlee laboristaren aurkako hauteskundeak galdu zuen eta egun gutxira utzi behar izan zuen akordioa. Aldiz, Stalin diktadore sobietarra izan zen bere lekuari eutsi zion bakarria (Joric, 2020).

Potsdamen aliatuek akordio garrantzitsuak lortu zituzten, batez ere Alemaniaren etorkizunari dagokionez. Lau “D”-en plana onartu zen. Alemaniaren desmilitarizazioa, desnazifikazioa, demokratizazioa eta deskartelizaioa. Alemania lau zatitan banandu egin zen, eta Berlin nahiz eta Sobietar batasunaren aldearen barnean egon, baita ere lau zatitan bananduko zen, gainera Austriaren banaketa emango zen. Gerrako kriminal naziak epaitzea erabaki zen (Nuremberg-en epaiketan) eta Alemaniak eskuratutako lurraldeak gerran zehar bueltatzea, horrez gain, banatutako Alemanian erabaki ekonomikoak lau potentzia okupatzaileen adostasunarekin hartzera konprometitu ziren (Joric, 2020).

Alemaniak 20.000 milioi dolarreko isuna ordaindu behar izango zizkien aliatuei, batez ere makinari eta fabrikari bidez. Hala ere, Gerra Hotzak saihestu egin zuen zor hori ordaintzeaz, eta aurreko atalean azaldu den moduan Marshall planaren eraginez Mendebaldeko Alemaniaren gerra isunaren erdia inguru barkatu zioten, gainera, lortu zuen herrialde horiek alemaniar esportazioak erosten hasia, zorrak itzultzeko behar zuten dirua lortzeko. Negozio borobila susposatu zuena Alemaniarentzat, bestela ezinezkoa izango litzakeelako zorrak bueltatzea (Benz, 2005).



La Conferencia de Potsdam

(Benz, 2005).

Alemaniarren okupazioak desnazitzea, desarmatzea eta kontrol ekonomikoa bereganatzea suposatzen zuen. Kontrol-kontseilu aliatua eratu zen, Berlinen kokatua; baina, koordinazio-organo gisa funtzionatzen ez zuenez, lau gobernadore militarrek desberdin jokatu zuten hasieran beraien eremuetan, eta Sobietar Batasuneko administrazio militarren esku-hartze aktiboak, zeinak aldaketa iraultzaileak ekarri baitzituen gizarte eta politika-egituretan, gero eta urruntze handiagoa eragin zuen mendebaldeko eremuaren eta ekialdeko eremuaren artean (Simón,1990).

1946. urtean, amerikarrek eta ingelesek beren okupazio-eremuak batu zituzten, eta “bizona” , edo ekonomia-eremu bateratua, bezala ezagutzen den eremua sortu zuten. Geroago, Errepublika Federala sortzeko lehenengo hazia izan zen. Frantzesak, hasieran okupazio suntsitzaileko politika aplikatu zutenak, 1948an Amerikarrei eta Ingelesei elkartu ziren. Sobietarrak bananduta mantendu ziren beraien eremuan; 1948ko martxoan, Aliatuen Kontrol Kontseiluan parte hartzeari utzi zioten; eta Marshall Planaren bidez amerikar laguntza errefusatu ondoren, gerra amaitu zenean egokitu zitzairen eremuan, Alemaniako Errepublika Demokratikoa ezarri zuten, SESBeko herrialde sateliteen eredia jarraituz. Partidu bakarreko estatua ezarri zen, eta haren buru izan zen Walter Ulbricht hogeituz baina gehiagor. Baina beti arazoekin, hala nola ekialdeko Berlinen matxinadak, 1953an, eta Ekialdeko Alemaniaren populazioaren ihes masiboa Mendebaldeko Alemaniara (Simón,1990).

1948ko ekainean mendebaldeko hiru gobernu militarretan erreforma ekonomiko berri bat ezarri zenean, sobietar batasunaren erreakzioa Berlinera sartzeko bide guztiak erabat blokeatzea izan zen Ekialdeko Alemaniaren barnealdean zegoelako. Sobietar Batasunak Mendebaldeko Alemaniaren estatu berriaren garapena geldiarazten saiatu zen, baina kontrakoa lortu zuen, eta elkartasun politika sendoa eman zen, Berlinen behar guztiei erantzuteko aireko zubia ezarri zen, non Mendebaldeko eremuetatik egunero hegazkinak abiatzen ziren biztanleriari laguntza humanitarioa eskaintzeko.

Pixkanaka, mendebaldeko hiru eremuetako alemanei botere politiko murriztuak eman zitzaizkien beren eremuko bizitza berreantolatzeko. Azkenik, 1949ko maiatzean funtsezko lege bat aldarrikatu zen, gobernadore militarrek eta Landertarren Parlamentuek zehaztua. 1949an Sobietarren okupazio-eremua Alemaniako Errepublika Demokratikoan (RDA)

bihurtu zen; mendebaldeko aliatuen okupazio-eremuak, berriz, Alemaniako Errepublika Federala (RFA) eratzeko elkartu ziren 1949an, eta haren Konstituzioa Bonnen aldarrikatu zen, hiriburu berria izango zena (Simón,1990).

(RFA) Demokrazia parlamentarioa eta kapitalista gisa ezarri zen eta RDA, berriz, estatu sozialista gisa ezarri zen, Alemaniako Alderdi Sozialista Batuaren kontrolpean egongo zena. Konrad Adenauer (1876-1967) alderdi demokristauaren burua zena, ofizialki presidentea bezala hautatua izan zen eta Mendebaldeko Alemaniaren buru egon zen 1949tik 1963ra. Mendebaldeko Alemaniaren ekonomiaren lehen ministro bezala Ludwig Erhard ezarri zen, erreforma monetarioaren eta Mendebaldeko Alemaniaren suspertzean paper erabakigarria hartuko zuena (Simón,1990).

Alemania bi estatu bereizitan banatzeak ondorio politiko, sozial eta ekonomiko garrantzitsuak izan zituen. (RFA) ekonomia oparo eta egonkorerrantz pausoak eman zituen, eta RDAk, aldiz, askatasun politiko eta zibil eza izan zituen herrialdea bilakatu zen. Denbora igaro ahala, tentsioa handitzen jarraitu zen, eta azkenean, Berlingo Harresia eraikitzea ekarri zuen 1961ean, hiria bi zatitan banatu eta herrialde osoaren zatiketa sinbolizatu zuena (Simón,1990).

III. Alemaniako mirari ekonomikoari lagundu zioten politika ekonomikoak

A. Estatuaren eginkizuna Alemaniako ekonomian

Estatuaren eginkizuna funtsezkoa izan zen Mendebaldeko Alemaniaren mirari ekonomikoan, “Wirtschaftswunder” izenez ere ezaguna dena, Adenauer, Wilhelm Röpke, Alfred Muller-Armack, Alexander Rüstow eta, batez ere, Ludwig Erharden izenei lotutako prozesua izan zen (Erhard,1982).

Mendebaldeko Alemaniak eredu propioa erabili zuen, garai horretako ekonomiariek eskola Ordoliberalera eredu moduan hartu zuten (De León Lázaro, 2017). Ordoliberalak aldeztu zituzten politiken artean, honako hauek zeuden, diruaren egonkortasuna, inflazioaren murrizketa, merkataritzaren eta inbertsioaren liberalizazioa, lehiari oztupoak kentzea, enpresen prestakuntza sustatzea eta jabetza-eskubideak babestea (Miralbell, 1996).

Ordoliberalak orden ekonomiko liberala ezartzeko beharra defendatzen zuten, merkatuan lehia, berrikuntza eta eraginkortasuna sustatzeko helburuarekin, baina, aldi berean, Estatuak merkatua arautzeko ahalmena edukitzea, lehia bidezkoa izateko eta merkatuak monopolioek edo kartekek menderatuko ez zituztela bermatzeko, merkatuan parte hartzen zuten kontsumitzaileen babesa zihurtatuz (Erhard,1982).

Alemanian 1930eko hamarkadan garatutako pentsamendu ekonomiko berria izan zen Ordoliberalismoa, eragin handia izan zuen garai hartan aurrera eramandako politika ekonomikoetan, zehazki, Bigarren Mundu Gerraren ondoren mendebaldeko Alemaniaren berreraikuntzan. Euckenek, hain zuzen ere, gerraosteko Alemaniako eta ordoliberalen politika ekonomikoen aita intelektualtzat jotzen denak, adierazi zuen ez zuen axola Estatuak asko edo gutxi parte hartzen zuen, baizik eta nola parte hartzen zuen. Walter Euckenek ideien inguruan Ludwig Erhard hezitu zen, eta gerra osteko ekonomia alemaniarra iraganean baino idea liberalagoekin antolatzeko arazoez arduratuko zen (Erhard,1982).

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Alemaniako ekonomia hondoratuta zegoen, inflazio izugarria zegoen, merkatuko prezioak gobernuak finkatzen zituen, premiazko ondasunak soilik arrazionamenduen bitartez lor zitezketen eta merkatu beltza gero eta gehiago ari zen hazten. Egoera hori ikusita, ekonomia egonkortzeko eta bultzatzeko beharra ikusi zuten ordoliberalak, beraz, Ludwig Erhard-en eskutik moneta eta zerga erreforma garrantzitsuak aurrera eraman ziren (Eichengreen, 2008).

B. Ezarritako politika ekonomikoak

B.1. Erreforma monetarioa eta Deutsche Mark sortzea

Gerrak Alemaniako finantza-sistema kaosean utzi zuen, diru-eskaintza handiegia zen ondasunen kopuruarekin alderatuz, eta horrek inflazio-presio handiak eragin zituen. 1948ko ekainaren 20an, Bizonak erabateko moneta-erreforma ezarri zuen. Deutsche Mark-ek (DM) Reichsmark-a ordezkatu zuen, moneta zaharretik berrira erabilitako aldaketa tasak ezberdinak izan ziren, diru zaharraren zati handiena 1:10 bihurketa tasa erabiliz gauzatu zen, hau da, 10 Reichsmark zaharrak 1 Deutsche Mark berriarengatik aldatzen ziren (Cameron, Neal, 2005). Hala ere, salbuespenak egon ziren, bihurketa-tasa zorren izaeraren arabera aldatzen zen,

adibidez, %0an (zor publikoak), %6,5an (banku-gordailuak eta erreserbak) eta %10ean (hipotekak eta zor pribatuak), era berean, pertsona baikoitzak alda zezakeen 1:1 bihurketa tasa batekin beraien lehenengo 40 DM (Hardach, 1980). Gainera, biztanle bakoitzak 40 DM jaso zituzten moneta aldaketa egiterakoan, eta bi hilabete geroago beste 20 DM. Enpresek 60 DM jaso zituzten langile bakoitzeko (Giersch et. al, 1994). Guztira, lehenengo diru zaharraren %93,5a zirkulaziotik kentzea lortu zuten, eta guztira 400 mila milioi baino gehiago baliogabetu zituzten erreklamoetan (Braun, 1990). Erreforma erabakigarria izan zen, moneta zaharrarekin inflazioa handitzen zihoan, eta biztanleria ondasunen truke-sistema batera itzuli zen, non dirua kafearen edo zigarroen truke ordezkatzan baitzen (Cameron, Neal, 2005).

Mendebaldeko Alemaniaren moneta erreformari esker diru-soberakina kentzea lortu zen, era berean, moneta berriaren jaulkipena 10.000 miloietan mugatu zen eta dolarrarekiko kanbio tasa finko bat zehaztu zen (Simón,1990). Moneta-erreformarekin batera, Erharden liberalizazioak eragina izaten hasi ziren. Moneta erreformaren egun berean, Erhardek prezioak kontrolatuta zituzten produktuen zerrendatik 400 artikulua berehala kentzeko eta arrazionamenduarekin amaitzeko erabakia hartu zuen, herrialde aliatu okupatzaileen iritzia kontuan hartu gabe. 1948ko uztaileko, lehendik zeuden prezioen kontrolen %90 indargabetu ziren, eta horrek amaiera eman zion, formalki, 1936ko prezioen izozteari (Cameron, Neal, 2005).

Erreformaren berehalako emaitzak izugarriak izan ziren. "Gauetik goizera, dendak berriro ere urteetan ikusi gabeko produktuez beteta zeuden; produkzioa %50 hazi zen sei hilabeteetan, eta hurrengo urtean %25 handitu zen" (Laqueur, 1992: 82). Gainera, Aurreko sei hilabeteetan lan absentismoa %15 inguru egon ondoren, ekainean %10 eta uztailean %6 izan ziren. Industria-produkzioa ia %15 handitu zen ekainetik uztailean bitartean. Prezioen kontrolak gogorragoak izan ziren sektoreetan, hala nola ehungintzan, arropan, zapatetan, ibilgailu motordunetan eta ekipo elektrikoetan aldaketak nabariagoak izan ziren (Eichengreen, 2008).

Dibisa egonkor bat izatea beharrezko bultzada izan zen kontsumitzaileen joerak aldatzeko, denbora luzean erreprimetuta egon ondoren, kontsumitzaileen nahiak indartsu agertu ziren. Merkatu beltza amaitu zen, eta han bildutako ondasun asko berehala transferitu baitziren

ekonomiara. Kontsumitzaileen eskaeraren gorakada horrek hazkunde handiak ekarri zituen ekoizpenean eta enplegu-sorreran epe laburrean (Braun, 1990).

Erreforma monetarioaren ondorio guztiak ez ziren onak izan. Diru kopuruaren murrizketa handia izan arren, kontsumitzailearen eskaera izugarri areagotu zen, eta horren eragina berehala nabaritu zen prezioetan. Erreforma egin eta lau hilabe ondoren, kontsumitzaileen prezioak urteko tasa %33,1era igo ziren, eta produktoreen prezioak %45 igo ziren. Sindikatuek greba orokorra deklaratu zuten 1948ko azaroaren 12an, prezioen kontrolei berriro ekitea eskatuz. Hala ere, ekonomia-agintariek ez zuten zalantzarik eduki, konturatu baitziren epe laburreko inflazioa sahiestezina zela prezioak artifizialki baxu izoztuta hamabi urtez izan zituen ekonomia batean. Gainera, kontsumitzailearen eskaeraren hazkundeak (prezioak igotzea eragin zutena) irabazi handiak suposatu zuten industriarentzat, produkzioa zabaltzen eta dirua inbertitzen hasi baitzen. 1949rako, inflazioaren mehatxua amaitu zen, ekonomiari egonkortasuna emanez (Giersch et. al, 1994).

B.2. Erreforma fiskala eta zergen murrizketa

Alemanien “mirari ekonomikoa” hainbat faktore eta neurri ezberdinen konbinaketari esker eman zen, neurri horien artean erreforma fiskala egon zen. Hasiera batean, Bigarren Mundu Gerra amaitu bezain azkar eta erreforma monetarioa eman baino lehenago, Mendebaldeko Alemanien potentzia okupatzaileek zergak maila altuetan mantentzea erabaki zuten, reichsmark zaharraren eskaintza maila murrizteko helburuarekin eta joera inflazionisten aurka egiteko (Cameron, Neal, 2005).

Behin erreforma monetarioa gauzatuta, zergeekiko hartutako joera aldatu zen, Ludwig Erhardek eta Ordoliberalak zergen presioa murriztea erabaki zuten. Zergen murrizketarekin, inbertsio pribatua eta enplegu berriak sortzea espero zen. Alemaniako gobernuak izugarri murriztu zituen errentaren eta enpresen gaineko zergak herritarren gaineko karga fiskala arintzeko, eta horrek enpresen inbertsioa eta hazkundera sustatu zituen. Era berean, salmenten gaineko zerga eta gerra-zerga murriztea erabaki zen, horri esker herritarrek eta enpresek beraien diru-sarrerak eta erosmen ahalmena mantentzea lortu zuten, kontsumoa eta inbertsioak sustatuz (Simón, 1990).

Erabaki horiekin batera, erregulazio ekonomiko asko ezabatu ziren, nazioarteko merkataritzaren liberalizazioa sustatzeko helburuarekin. Horri esker, Alemaniako enpresek merkatu global eta gero eta irekiago batean lehiatzeko aukera zuten. Era berean, langabezia-asegurua sistema bat ezarri zen, horrek langileen arriskua murriztu zuen eta lan-mugikortasun handiagoa ahalbidetu zuen, horri esker, produktibitatea eta hazkunde ekonomikoa handitzea eragin zuen (Simón,1990).

1952 urtean Inbertsioen legea indarrean sartu zen, Inbertsioa sustatzeko legea bezala ezaguna zena ere. Lege honek, funtsezko papera jokatu zuen Mendebaldeko Alemaniaren ekonomiaren berreraikuntzan. Lege hau Alemanian inbertsio pribatua sustatzeko sortu zen, Bigarren Mundu Gerraren ondoren inbertsio pribatua nulua zelako. Legearen helburu nagusia instalazioen modernizazioan eta hedapenean inbertitzen zuten enpresei pizgarri fiskalak ematea zen. Legeak zenbait zerga-salbuespen eta zerga-kenkari ezarri zituen ikerketan eta garapenean inbertitzen zuten enpresentzat, bai eta fabrika berrien eraikuntzan edota jadanik existitzen ziren fabriken modernizazioan inbertitzen zituztenei. Gainera, mailegu faboragarrien sistema bat ere ezarri zen finantzaketa gehigarria behar zuten enpresentzat. Horri esker, inbertsio pribatua nabarmen handitu zen Alemanian, eta horrek hazkunde ekonomikoa ekarri zuen. Horrek ere enplegua eta ondasun eta zerbitzuen eskari handiagoa eragin zituen, eta horrek, aldi berean, hazkunde ekonomikoa bultzatu zuen (Wolfgang, Karl, 1979).

Laburbilduz, Mendebaldeko Alemaniaren erreforma fiskala inbertsio pribatua sustatzeko, gobernuak ekonomian zuen esku-hartzea murrizteko eta nazioarteko merkataritzaren liberalizazioa areagotzeko neurrien konbinazioa izan zen. Egonkortasun politikoa eta Alemaniako enpresa-liderrek gerraren ondoren beraen herrialdeko ekonomia berrasmatzeko izan zuten gaitasuna funtsezkoa izan zen harrialdearen garapenerako. Neurri horiei esker, Alemaniak azkar berreskuratu ahal izan zen Bigarren Mundu Gerren hondamenditik, eta hurrengo hamarkadetan ekonomia azkar hedatzeko oinarriak ezarri zituen.

B.3. Merkataritzaren liberalizazioa eta murrizketa ekonomikoak ezabatzea

1950erako, erreformaren aurreko alemaniar ekonomiaren krisiaren gehiengoa konponduta zegoen. Hala ere, sektore garrantzitsu bat oraindik ere zorrotz kontrolatzen zen: kontu korrontea (inportazioak/esportazioak eta ordainketa-balantza). 1947tik aurrera Bizonaren kanpoko merkataritza-agintaritza, Esportazioko eta Inportazioko Agentzia Bateratuaren (JEIA) kontrolpean egon zen. Honek, negozioazioak bi kategoriatan antolatu zituen. Lehenengoa Alemaniako mendebaldeko biztanleen oinarritzko beharrak betetzen zituzten ondasunei buruzkoa zen, hala nola, elikagaiak, energia, farmazia-produktuak eta nekazaritzako hornidurak. Horiek hasieran agintaritza aliatuak finantzatu zituen, eta gero Marshall Planeko funtsek. "B kategoria", edo industria-produkzioarako lehengaiak, esportazio-irabazietatik edo Europako ekonomia-eremuaren barruko merkataritzatik lortutako dolarrekin ordaindu behar ziren (Braun, 1990). Gerrak suntsitutako Europak zailtasunak zituen ondasunak esportatzeko, eta eskasia kronikoa zegoen dolarretan. Desoreka hori larria izan zen Mendebaldeko Alemanian, non kontu korrontearen defizita 158 milioi dolarrekoa izan baitzen 1949an eta 243 milioikoa 1950ean. Egoera hori ikusita, Europako Ordainketen Batasunaren (EPU) esku hartzea ekarri zuen, Marshall Planarekin batera Europako herrialdeen arteko merkataritza-harremanak liberalizatzearen helburua zuena. Egoera zuzentzeko, Europako herrialdeen kontu korrontea handitzea erabaki zen, herrialde bakoitzari kreditu multilateralen kopuru jakin bat eman zitzaion, eta horrek gutxitu egin zuen Europak dolar fisikoekiko zuen mendekotasuna, herrialde Europarren arteko merkataritza sustatuz (Nicholls, 1994).

Estatu Batuek Marshall planarekin batera Europako Ordainketen Batasuna sortzearen alde egin zuten 1949an, EPUk (Europako Ordainketen Batasuna) Marshall Planaren hartzaile guztiak inplikatu zituen, eta horrek aldebiko desorekak bertan behera uztea ahalbidetu zuen. EPUk kreditu garrantzitsuak eman zituen aldi baterako defizitak finantzatzeko eta zailtasun iragankorrak zituzten herrialdeei laguntza eskaintzeko. Era berean, herrialde hartzekodunei maileguak itzuliko zitzaizkiela ziurtatzeko, herrialde kide batek bere kuota agortzen zuenean, EPUko Zuzendaritza Batzordea biltzen zen aholkua emateko eta zein motatako politika zuzentzaileak hartzea gomendatzeko (Eichengreen, 2008).

EPUa erakargarria izan zen superabita zuten herrialdeentzat, EEEn Liberalizazio Kodeari lotuta baitzegoen, eta horrek beste parte-hartzaileak diskriminatzeko neurriak kentzera behartzen baitzituen. Kideek, gainera, oztopo komertzialak %50 murriztea erabaki zuten. Merkataritzaren liberalizazioak mesede egiten zien esportazio-maila handiko herrialdeei.

EPU sortu eta denbora gutxira, 1950eko ekainean, gerra piztu zen Koreako penintsulan. Estatu Batuetako gerra eta industriaren eskaria berpizteak krisi gogorra eragin zuen Alemaniako ordainketa-balantzan. Alemaniako industriaren eskaria eta esportazioen produkzioa handitu zituen, baina inportatutako ondasunen eskaria atzeratu egin zen. Alemaniako esportazioak inportazioak baino maila apalagotik hasi zirenez, nahiz eta balantze komertzialaren bi osagaiak asko hazi, kontu korrontearen defizita handitu egin zen termino absolutuetan. Bi hilabeteren ondoren, Alemaniak EPUko urteko kuotaren %60 agortu zuen, azkar hedatzen ari zen ekonomia batek gero eta lehiakorragoa zen nazioarteko merkatu batean inportatutako baliabide gehiago eskatzen baitzituen. 1950eko ekainean, Alemaniak 7 milioi dolarreko defizita zuen EPUarekin, baina urriaren hasieran zorra 71 milioikoa zen (Giersch, et. al, 1994).

Alemaniako kontu korrontea defizitera desbideratu zenean eta Europako Ordainketa Batasuneko (EPU) kuota agortu zuenean, urrez eta dolarrez egindako erreserbak gutxitzen hasi ziren. Danimarka, Herbehereak eta Italia Alemaniako esportazio-merkatuaren mende zeuden, eta shock baten beldur ziren Alemania inportazio-kontroletara itzultzen bazen, horrek arriskuan jar zezakeen Erharden merkatura zabaltzeko bideratutako berrikuntzak (Eichengreen, 2008).

Europako Ordainketa Batasunak (EPU) berehala bidali zuen ordezkari bat Alemaniara, honek ondorioztatu zuen Alemaniar arazoak kontrolatara jo gabe gaindi zitezkeela ekonomiari denbora ematen bazitzaion. EPUren Kontseilu Betearazleak, 120 milioi dolarreko ez-ohiko kreditua eman zion Alemaniari, herrialderen inportazio-esportazio defizita orekatzeko (Braun, 1990).


Zenbait hilabe ondoren, Alemaniako kanpo-kontuak oreka berreskuratu zuten eta superabita lortu zuten. Urteko defizit komertziala hogeita hamar milioi dolarrera jaitسي zen, 1950ko

amaieran Mendebaldeko Alemaniak kanpo-kontuetan superabita lortu zuen. 1951ko amaierarako, 392 milioi dolarreko superabitera igo zen kontu korrontea, guztira 635 milioi dolarreko aldaketa lortu zuen urte batean (Braun, 1990). Ordoliberalismoan oinarritutako Mendebaldeko Alemaniaren Merkatuko Ekonomia Sozialak beste arazo bat zuzentzea lortu zuen.

Arrakasta horren erakusgarri, Errepublikak Federalak urrian EPUren bitartez jasotako ez-ohiko kreditua programatu baino bost hilabete lehenago itzultzea lortu zuen. 1952ko apirilean, inportazio guztien %75etik gora aduana-eskubiderik gabe sartzen ziren berriro Mendebaldeko Alemanian. Urtebete geroago, proportzio hori %90era igo zen.


Hain zuzen, Koreako gerrak eta haren ondorengo gorakadak eskari globala piztu zuten, horrek Mendebaldeko Alemaniaren industria gero berrituagoa eta indartsua bilakatzen ari zena, egoera ezin hobean kokatu zuen munduko gainerako lekuetara esportatzen hasteko.

Grafikoa 3.1 Europako Ekonomia Lankidetzarako Erakundea (EEE) produkzioa eta merkataritza (1947-1955)



(Eichengreen, 1994, 82orr.).

Grafikoa 3.2 Europako Ekonomia Lankidetzarako Erakundearen (EEE) esportazioen aldaketa Europako herrialde hautatuak (1950-1952)



(Eichengreen, 1994, 82orr; International Monetary Fund, Direction of Trade Statistics, 1980).

Europako Ordainketa Batasunak (EPU) eskeini zituen laguntzei eta ez-ohiko kredituei esker 1950 urtetik aurrera EEEn parte hartzen zuten herrialdeek izugarritzko hazkundera lortu zuten industria produkzioan eta esportazioetan. (3.1 Taula ikusi), hazkunde handiena EEEn parte hartzen zuten herrialdeen arteko esportazioetan eman zen, hala ere, Koreako gerrari esker, mundu mailako industria eskaria izugarri hasi zen, eta horrekin batera EEEn parte hartzen zuten herrialdeen kanpo esportazioak herrialde ezberdinetara..

EEEn parte hartzen zuten herrialdeetatik, hazkunde handiena lortu zutenek Mendebaldeko Alemania eta Austria izan ziren, (3.2 Taula ikusi) aurretik azaldu den moduan, Mendebaldeko Alemaniaren erreforma monetarioa, prezioen liberalizazioak eta industriaren berrezarpena eta berrikuntza eragin zuten hazkunde hori. Alemania eta Austriaren EEE taldearen barnean gauzatutako esportazioen miala, 1950-1950 epealdian, gainerako taldekideen bikoitza baino gehiago izan zen (Eichengreen, 2008).

Gerraondoko Europan, industria siderurgikoa berreraikitzea funtsezkoa zen, garai horretako ekonomiaren oinarria zelako. Mendebaldeko Alemaniaren eta Frantziaren arteko lankidetzak sustatzeko Ikatzen eta Altzairuaren Europar Erkidegoa (IAEE) sortu zen. Era berean, industria nuklear berriari bultzada emateko Energia Atomikoaren Europar Erkidegoa (EAEE) sortu zen. Europaren ekonomia berrezartzeko, nazioen arteko lankidetzak asmoa funtzeskoa

izan zen, 1957 urtean Erromako Ituna sinatu zen merkatu bateratu bati sorrera emanez. Itun eta erakunde berri horiek oso onuragarriak izan ziren Mendebaldeko Alemaniarentzat, beraren industria garatzen jarraitzea eta herrialde gehiagorekin harremanak sortzea eragin baizituzten, esportazioei mesede eginez (Barciela, 2013).

IV. Alemaniako mirari ekonomikoa bultzatu zuten sektoreak

50eko eta 60ko hamarkadetan zehar kapitalismoaren urrezko aroa bizi izan zen, Europako herrialdeak gerratik berreskuratzen hasi ondoren, inoiz ikusitako hazkunde-garai luze eta emankorrenaren lekuko izan ziren. 1950-1973 bitartean, Mendebaldeko Europaren biztanleko BPGaren batez besteko hazkundea % 3,8koa izan zen, 1870-1913 aldian, berriz, % 1,4koa, eta 1913-1950 aldian, %1,2koa izan ziren. Historian inoiz ez zen eman horrelako hazkunderik, Mendebaldeko Alemaniaren kasua izan zen garai hartan Europan gehien nabarmendu zena, biztanleko BPGaren batez besteko hazkundea %7 ingurukoa izan baitzen 1950-1960 bitartean, eta %5 ingurukoa 1950-1973 bitartean (Palafox et al., 1999).

Europako mendebaldeko ekonomietan izandako aldaketa horren ondorio nagusia langabezia-tasa murriztea eta prezioen igoerari eustea izan zen. Horri esker, Europako ekonomiak enplegu osoan ezarri ziren, eta inflazioa % 4,1 mantentzea lortu zen, nahiz eta produktuen eskaria handitzea produkzioan bizi izandako hazkundearengatik (Palafox et al., 1999).

Mendebaldeko Alemania bizi izandako hazkunde harrigarria azaltzeko Europako beste herrialdeekin konparatuz, aurreko atalean azaldu diren neurri eta politiketatik abiatuta, sektore bakoitzak bere ekonomian izan zuen eragina eta garrantzia aztertu behar da.

A. Lurra, lana, kapitala eta heziketa mailaren garrantzia

Mendebaldeko Alemaniak urrezko aroan zehar izandako hazkunde azaltzeko eta nola eman zen ulertzeko Faktoreen Produktibitate Osoaren aladagaia aztertzea lagungarria izan daiteke.

Taula 4.1 HAZKUNDEAREN KONTABILITATEA EHUNEKOTAN (1950-1973)

Blokea edo herrialdea	BPGaren hazkundera	Faktoreen ekarpena			(1) FPOen ekarpena
		Lurra	Lana	Kapitala	
ELGE (2)	5,4	0	12	26	62
SESB	5,1	3	35	51	10
Asia (3)	5,6	1	41	33	26
Latinoamerika	5,2	3	35	27	34
Japonia	9,3	-1	16	26	59
Estatu Batuak	3,7	0	31	28	41
Britaina Handia	3	0	2	33	66
Mendebaldeko Alemania	5,9	0	2	27	70
Frantzia	3,1	0	7	21	72

(Barciela, 2013, 359 orr.; Carreras, 2003, 294orr.).

Oharrak: 1) FPO: Faktoreen Produktibitate Osoa; 2) Honako bost herrialdeen batez besteko aritmetikoa: Japonia, Estatu Batuak, Britainia Handia, Mendebaldeko Alemania eta Frantzia; 3) Japonia barne; herrialde hori gabe, Asiako BPG 5,2 litzateke.

Mendebaldeko Alemaniaren hazkundera azaltzen duten faktoreei erreparaturaz, (Ikusi 4.1 Taula) ondoriozta daiteke nekazaritzak ez zuela eragin handiena izan. Hala ere, produktibitatearen eta bizi izandako hazkunderaren arrazoiak jakitea ezinbestekoa da, horretarako, herrialdean aurrerapen teknologikoak, kapital fisikoak, nekazaritzak, kanpo merkataritzak eta antolamendu-hobekuntzak izandako eragina aztertu behar dira.

Herrialde garatuetan, lur faktorea ez zuen izan garrantzia handirik, aldiz, lan faktorea ezinbestekoa izan zen garatu gabeko herrialdeen hazkunderako, baina zenbait herrialde garatuetan garrantzitsua izan zen ere, adibidez, Estatu Batuetan. Hala ere, herrialde garatuetan askoz garrantzitsuagoa izan zen biztanleriaren heziketa maila, lanaren bolumena maila baino. Herrialde garatuetan, batez beste %26ko hazkundera zor zitzaion kapital faktoreari (%27 Alemanian), hau da, herrialde horietan gauzatutako inbertsio maila altuari esker, era berean, makineriaren eta ekipoen stock gordina asko hazi zen European (Ikusi 4.1

Taula), batez beste %6.8 Europan, eta horrek produkzioa handitzea ekarri zuen (Barciela, 2013).

Hala ere, Mendebaldeko Alemaniak lur eta lan faktoreen bidez izandako hazkundera ez zen izan oso handia, hazkunderik handiena kapital faktoreaz gain, Faktoreen Produktibitate Osoari (FPO) esker lortu zuen (Ikusi 4.1 Taula). Faktoreen Produktibitate Osoan, zenbakiakin azaldu ezin daitekeen produkzio-faktoreetan izandako hobekuntza adierazten da, baliabideen esleipenaren, produkzioaren antolakuntzaren eta aurrerapen teknologikoen hobekuntzen bitartez. Beraz, Mendebaldeko Alemaniak produkzioan izandako hobekuntza biztanleriaren heziketa mailari eta produkzioan izandako hazkunde intensiboari esker eman zen, hau da, produkzioa, kalitatea eta enplegua modu eraginkorrean eta orekatuan erabiltzearen ondorioz lortutako hazkundera (Barciela, 2013).

Taula 4.2 15 ETA 64 URTE ARTEKO POPULAZIOAREN HEZKUNTZA-URTEAK

	1950
MENDEBALDEKO ALEMANIA	10,4
BELGIKA	9,83
ERRESUMA BATUA	10,84
ESPAINIA	5,13
FRANTZIA	9,58
HOLANDA	8,12
IRLANDA	10,44
ITALIA	5,49
PORTUGAL	2,53
SUEDIA	9,5
JAPONIA	9,11
ESTATU BATUAK	11,27

(Barciela, 2013, 364 orr; Maddison, 2002, 128 orr.).

Oharra: Hezkuntza-urteetan zenbakia honela neurtu da: lehen hezkuntzari 1 balioa eman zaio, bigarren hezkuntzari 1,4 eta goi-mailakoari 2.

Aurretik adierazi den moduan, Mendebaldeko Alemaniaren hazkundera zein berreantolaketara hain azkar eman ahal izatearen arrazoiaren artean biztanleriaren zuen hezkuntza maila altua dago. Mendebaldeko Alemaniak 1950 urtean munduko biztanleria prestatuenetarikoa eta gehien hezitutakoa zuen, batez beste, 10,4 urteko hezkuntza urterekin (Ikusi 4.2 Taula), soilik Estatu Batuak, Erresuma Batua eta Irlandaren atzetik kokatuta zegoen, biztanleriaren prestakuntza maila faktore erabakigarria izan zen ekonomiaren berpizterako, gainerako herrialdeekiko abantaila handia suposatu zuena, zeren eta biztanleria hezituagoa izatea langile produktiboagoak izatea suposatu zuen (Barciela, 2013).

Laburbilduz, Mendebaldeko Alemaniak hondamenditik berregiteko arrazoiaren artean, baliabideen esleipen, produkzioaren antolakuntza, aurrerapen teknologikoen hobekuntzen zein aurretik oso ondo prestatutako eta hezitutako biztanleriaren bitartez lortu zuen.

B. Urrezko aroan zehar sektore berriak eskuratutako garrantzia

Taula 4.3 Enpleguaren egitura (1950-1973) (guztiarekiko ehunekoak)

		NEKAZARITZA	INDUSTRIA	ZERBITZUAK
Mendebaldeko Alemania	1950	22.2	43	34.8
	1973	7.1	46.6	46.3
Erresuma Batua	1950	5.1	46.5	48.4
	1973	2.9	41.7	55.4
Estatu Batuak	1950	13	33.3	53.7
	1973	4.1	32.3	63.6
Frantzia	1950	28.3	34.9	36.8
	1973	10.9	38.5	50.6
Holanda	1950	13.9	40.2	45.9
	1973	6.1	35.5	58.4
Japonia	1950	48.3	22.6	29.1
	1973	13.4	37.2	49.4

(Barciela, 2013, 354 orr.; Maddison, 1996, 43 orr.).

Enplegu-sorkuntzan, gerra amaitzerakoan Nekazaritza-sektorea enplegu-sortzaile garrantzitsua izan zen gerraostean, langile asko langabe baitzeuden gerraren ondoren. Hala ere, 50 eta 60 hamarkadetan zehar sektore industrialak eta zerbitzu sektorea garrantzia handiagoa irabazi zuten, langile askok nekazaritza sektorea utzi zuten horietan lan egiteko, 1950 urtean biztanleriaren %22,2 nekazaritzan lan egiten zuten, aldiz, 1973 urterako nekazaritza soilik %7,1a lan egiten zuten, herrialdeak izandako modernizazioaren isla dena (Ikusi 4.3 Taula).

Mendebaldeko Alemaniaren nekazaritza sektorearen enpleguaren gutxitzearekin 50 hamarkadaren erditik zehar (Ikusi 4.3 Grafikoa), enplegua gehitu egin zen meatzaritzan, industrian eta eraikuntzan. Zerbitzuen sektorea oso azkar hazi zen 50 eta 60 hamarkadetan zehar eta horrekin batera tertziarizazio prozesua eman zen, ekonomiak egiturazko doiketa garrantzitsuak egin zituen, eta nekazaritzak BPGri egindako ekarpena 1951n %10,3 izatetik 1960 % 6,3 izatera murriztu zen. Zerbitzu sektorearen hazkunde lilugarri horrek, bi osagaien bidez eman zen, alde batetik, zerbitzu tradizionalak asko garatu ziren Mendebaldeko Alemanian (Komunikazio enpresak, banketxeak, Aseguru konpainiak eta telekomunikazioak), eta bestetik, zerbitzu berri asko sortu ziren biztanleriaren ongizate estatuaren jarraituko politikari esker, adibidez, osasungintzan, hezkuntzan edo turismoan (Barciela, 2013).

Hitz gutxitan, 50 hamarkadan zehar lehen sektorea azkar modernizatzea eta produkzioa handitzea lortu zen, baina urteak igaro ahala industria zein zerbitzu sektoreak gailendu ziren, Mendebaldeko Alemaniaren BPGaren eta lanaren zati handiena suposatuz, herrialdeak bizi izandako berpiztearen eragile handiak izanez.

C. Industria-produkzioaren gorakada

1950ko hamarkadan Mendebaldeko Alemaniaren industria produkzioa beraren historian inoiz bizi izandako hazkunderik handiena izan zuten, Koreako gerrak eta Europako herrialdeen arteko merkataritza sustatzeko sortu berriko erakundeak (CECA) hazkunde hori bultzatu zuten. Mendebaldeko Alemaniaren biztanleriaren hezkuntza maila altua, Marshall planaren laguntza ekonomikoak eta inbertsio pribatuaren hazkundera, eta erreforma monetarioa behin gauzatu, industria oso azkar modernizatzea eta berregitea eragin zuten (Eichengreen, 2008).

Urrezko aroan zehar, sektore garrantzitsuena industrialia izan zen Mendebaldeko Alemanian, zerbitzu sektorearen hazkundearekin batera BPGren ehuneko handiena suposatu zuen.

Koreako gerra eztanda egin zuenean Alemaniako ekonomia funtsezko baliabide asko oraindik erabili gabe zehuzkan, aldiz, herrialde lehiakide potentzial gehienek ekonomiak jadanik enplegu-maila altua lortu zuten. Alemaniak, beraz, immigranteen etorrerarekin eta langabezia zegoen biztanleriarekin errazago ase zuen estatuko eta kanpoko eskari berriaren hazkundera, inflazio mailak handitu gabe (Wolfgang, Karl, 1979).

Barne-ekaria handitzearekin batera, munduko eskaera nabarmen handitu zen, hain zuzen ere, Alemaniak trebetasun handia ekoizteko ahalmena zuen ondasunen eskarian (metalurgia, siderurgia, kimika, automobilgintza). Esportazioak ia bikoiztu egin ziren 1950eko ekainetik 1952ko ekainera bitartean. Aldi horretan ere, industria-ekoizpenaren indizea 26 puntu igo zen (Ikusi 4.4 Taula) (Wolfgang, Karl, 1979).

Taula 4.4 Industria-Ekoizpenaren Indizea, Mendebaldeko Alemanian (1950=100)

Urtea	Industria Totala
1951	118
1952	126
1953	139
1954	155
1955	178
1956	192
1957	202
1958	208
1959	224
1960	249

(Statisches Jahrbuch Fur Die Bundesrepublik Deutschland, 1964-1965, 243,246 orr.).

1951aren amaieran, Mendebaldeko Alemaniako ekonomiak arrakastaz gainditu zituen hasierako zailtasun guztiak. Ekonomia berrezartzeko faserik kritikoenak amaituta zeuden.

Etorkizuneko lana hedapen handiagoa erraztea zen. 50 hamarkadan zehar, Mendebaldeko Alemaniaren produkzio industrialak %249 hazi zen (Ikusi 4.4 Taula), Europako beste herrialdeena baino hazkunde askoz handiagoa izan zena. Baina Mendebaldeko Alemaniaren industria-sektorea garai horretan zehar beste herrialdeetako baino gehiago hazteko zenbait arrazoi zeuden.

Hasteko, Mendebaldeko Alemaniak industria-egitura sendoa zuen, Bigarren Mundu Gerraren aurretik, Alemania herrialde industrializatua zen jada, eta industria-egitura ondo garatuta zuen. Beraz, gerrak eragindako kalteak handiak izan arren, Mendebaldeko Alemaniak oinarri sendoa zuen bere ekonomia berreraikitzeke. Beste erabaki garrantzitsua, Mendebaldeko Alemaniak jasotako diru-laguntzekin teknologian gauzatutako inbertsio handia izan zen. Gerraren ondoren, Alemaniak gogor inbertitu zuen teknologian eta produkzio-prozesuen hobekuntzan, eta horri esker, Mendebaldeko Alemaniaren enpresek kalitate handiko ondasun eta produktuak modu eraginkorragoan eta kostu txikiagorekin ekoizteko aukera zuten.

Era berean, hurrengo atalean azalduko den moduan, Mendebaldeko Alemaniak esportazioekiko zuen ikuspegia oso lagungarria izan zen, herrialdean bertan ekoiztutako ondasunen esportazioak handitzean jarri zuen arreta handia, garapenean zeuden sektore berriei garrantzia emanez, adibidez sektore kimikoari edo farmazeutikoari. Horren ondorioz, Mendebaldeko Alemaniaren produktuen eskaera handitu egin zen mundu osoan. Bestalde, Mendebaldeko Alemanian erabilitako ongizate estatuaren politika egokia izan zen enpresen eta gobernuaren arteko lankidetzaren hobetzeko. Enpresek lankidetzaren estuan lan egin zuten sindikatuekin eta gobernuarekin, produktibitatea eta eraginkortasuna hobetuz, eta horrek lan gatazkak murrizten eta langileei pozik edukitzen lagundu zuen.

Azkenik, aurreko atalean azalduko den moduan, Mendebaldeko Alemaniaren biztanleria Europako gainerako herrialdeena baino hezituagoa eta trebeagoa zen, gainera, Alemaniak gogor inbertitu zuten lan-indarraren hezkuntzan eta trebakuntzan. Horrek esan nahi zuen langileek industria modernoan lan egiteko beharrezko trebetasunak eta gaitasunak hobeto garatuko zituztela.

Taula 4.5 Mendebaldeko Europa Industriala: Ekoizpena Guztira, Enplegua, Lan produktibitatea eta Populazioa 1950-1969 (Urteko Hazkunde konposatuko portzentajea)

	EKOIZPENA			ENPLEGUA			EKOIZPENA LANGILEKO			POPULAZIOA
	1950/2-1967/9	1950/2-1958/60	1958/60-1967/9	1950/2-1947/9	1950/2-1958/60	1958/60-1967/9	1950/2-1967/9	1950/2-1958/60	1958/60-1967/9	
Austria	5.0	5.7	4.5	0.1	0.4	-0.2	5.0	5.3	4.7	0.3
Belgika	3.5	2.5	4.5	0.4	0.2	0.6	3.1	2.4	3.8	0.6
Danimarka	4.0	3.2	4.7	1.1	1.0	1.2	2.8	2.2	3.4	0.7
M. Alemania	6.2	7.5	5.1	1.2	2.2	0.3	5.0	5.2	4.8	0.9
Frantzia	5.0	4.3	5.5	0.4	0.0	0.7	4.6	4.4	4.8	0.9
Irlanda	2.5	0.8	4.0	-0.7	-1.6	0.1	3.2	2.5	3.9	0.0
Italia	5.4	5.3	5.5	0.4	0.7	0.2	5.0	4.6	5.3	0.7
Herbehereak	5.0	4.5	5.5	1.1	1.1	1.2	3.9	3.4	4.3	1.3
Britania Handia	2.7	2.4	2.9	0.5	0.5	0.4	2.2	1.8	2.5	0.5
Batez Beste	4.6	4.5	4.7	0.6	0.8	0.5	3.9	3.6	4.2	0.8

(Aldcroft, 2001, 130 orr.; United Nations, The European Economy from the 1950s to the 1970s, 1972, 6 orr.).

4.5 taulak mendebaldeko herrialde industrialei buruzko funtsezko datu batzuk ematen ditu. Erraz ikus daiteke produkzioaren hazkundera nahiko uniforme izan zela 1950 eta 1960 urteen artean, nahiz eta 1950eko hamarkadaren amaieratik aurrera azelerazio txiki bat hautematen den. Mendebaldeko Alemaniak, sektore industrialari esker, BPGan hazkunderik handiena lortu zuen 1950/2-1967/9 eta 1950/2-1958/60 epealdietan, %6,2 eta %7,5 hazkundera lortuz. Aldiz, 1958/60-1967/9 epealdia hartzen badugu, lortutako hazkundera %5,1ekoa izan zen (Aldcroft, 2001).

Alemaniak, Suitzak eta Herbehereek urteko ehuneko 1etik gorako lan ekarpena izan zuten (Mendebaldeko Alemaniaren kasuan 1950/2-1958/60 2.2 izatera heldu zen, immigrazio maila

altua eman zelako). Hortik ondorioztatu daiteke produkzioaren irabazi nagusiak laneko produktibitatea handitzearen ondorio izan zirela. Era berean, Mendebaldeko Alemaniaren kasuan, langile bakoitzeko ekoizpenari dagokionez, mailarik altuenak lortu zituen langileen trebakuntza eta prestakuntza maila zirela eta (1950/2-1967/9 epealdian 5 izanez). Aurrekoari, Mendebaldeko Alemaniaren populazioa 0.9 gehitu zela 1950-1970 epealdian adierazi behar da, lan egiteko prest zeuden biztanleen kopurua handitu zuena (Aldcroft, 2001).

Industriaren hazkundearekin batera, aldaketa handiak gertatu ziren enpleguan, produktuetan eta beraien osaeran. 1950eko hamarkadatik aurrera alemaniak sektore garrantzitsuetan jarri zuen arreta, hala nola, kimikakan, automobilgintzan, farmazeutikan, konpainia elektrikoetan eta metalurgian, hazkunde handia lortuz (Barciela, 2013). Horren ondorioz, Alemaniako enpresak, hala nola Siemens, Volkswagen, Bayer eta Bosch, munduko lider bihurtu ziren beraien alorretan, berrikuntza teknologikoari eta kalitate handiko produktuen munduko eskaerari erantzuteko gaitasunari esker.

Taula 4.6 Zenbait sektoreren hazkunde-tasa konparatiboak 1953-1975

	Industria(totala)	Kimika	Elektrikoa	Automobilak
1953-57	48.7	47	72.5	71.5
1958-62	31.9	47	54.5	67.5
1962-66	22.4	52.5	23.5	33
1967-71	29.4	53.5	46.2	42.7
1971-75	2.8	12.4	11.4	16.6
1953-71	128.2	186.6	194.7	206.7

(Minnerup, 1987, 85orr.).

Industriaren hazkunderik handienak 1953-1957 epealdian lortu ziren, horien artean gehien hazi ziren sektore industrialak automobilgintza eta elektrizitatearenak izan ziren %70 inguruko hazkundearekin, era berean, industria kimikoak %47a handitu zen (ikusi Grafikoa). Aldiz, 60 hamarkadan automobilgintzaren eta industria elektrikoaren hazkundeak gero eta apalagoak bilakatzen hazi izan ziren, 1958-1962 epealdean %67,5 eta %54,5 hazkunde lortuz, 1962-1966 epealdian %33 eta %23,5 hazkundera lortuz eta 1967-1971 epealdian %42,7

eta %46,2 hazkundera lortuz. Ordea, industria kimikoak hazkunde egonkorra izan zuen 60 hamarkadan zehar, epealdi bakoitzean %50 hazkundera lortuz.

Laburbilduz, urrezko aroan zehar, Mendebaldeko Alemaniaren industria-sektorea Europako beste herrialdeena baino gehiago eta azkarrago hazi zen arrazoi hauengatik; industria-egitura sendoagoa, teknologian inbertsio handiagoa, esportazio ikuspegi egokiagoa, talde-lana eta lan-indarraren hezkuntza eta trebakuntza handiagoa izan zituelako.

D. Kanpo merkataritzaren erkarpena

50 eta 60 hamarkadetan zehar, Mendebaldeko Alemaniaren esportazioak nabarmenki hazi ziren, batez ere sektore industrialean izandako garapenari esker. 1951 eta 1958 bitartean, Mendebaldeko Alemaniako esportazioen kanpo-eskariak eta barneko inbertsio-eskariak bultzatu zuten ekonomiaren hedapena. Kontsumo pribatua ere nabarmen handitu zen diru-sarrerak handitu ahala, baina BPGaren portzentaje gisa, behera egin zuen: % 65,8tik (1949) % 61,1era (1951), % 58,8ra (1957) eta % 57,3ra (1960) (Wolfgang, Karl, 1979).

Lehengaien esportazioak 1951 urtean 14,6 mila milioi marko alemanetik 31,0 mila milioi marko alemanera izatera igo ziren 1958an, eta 47,8 mila milioi marko alemanetara 1960an. Horietako gehienak (%73,1 1951n, %82,2 1958an eta %82,4 1960an) produktu bukatuak izan ziren. Horrek, aldaketa handiak eragin zituen esportatutako produktuetan, makineria, automobilak, burdinazko eta altzairuzko produktuak, produktu kimikoak eta ekipo elektro-teknikoak nabarmenduz (Wolfgang, Karl, 1979).

Mendebaldeko Alemaniak izandako esportazio-bultzada handia erraztu egin zen, neurri handi batean, prezioen egonkortasunei esker, horrek nabarmen handitu zuelako Mendebaldeko Alemaniaren nazioarteko merkatuetan izandako lehiakortasuna. Esportazioekin batera, inportazioak ere azkar hazi ziren (ikus 4.7 taula). Era berean, dibisen erreserbak erritmo azkarrean metatzen jarraitu ziren. 1958rako, herrialdeko dibisa erreserbak 26,1 mila milioi marko alemaniar ziren, Alemaniak inoiz izandakoa baino gehiago, 1914 baino urte hoberenetan baino gehiago. 1960rako, dibisa erreserbak 31,6 mila milioi marko alemaniarretara iritsi ziren. Lortutako dibisen erreserba kopuru horri esker, Alemaniar markoa dibisa boteretsua bihurtu zuen (Wolfgang eta Karl, 1979).

1951n Ikatzaren eta Altzairuaren Erkidegoa ezarri zenean, Europako integrazio ekonomikorako lehen urrats garrantzitsua eman zen. Sei urte geroago Erromako Ituna sinatu zen, merkatu bateratua ezarri zuena. Bi ekitaldi horien artean, Mendebaldeko Alemania aitzindari bihurtu zen Europan merkataritza librea ezarriz eta mundura zabaltzen.

Inbertsio-eskariak hazten jarraitu zuen esportazioekin batera. Barne-inbertsio gordina 21,8 mila milioi marko alemanetara iritsi zen 1950ean, eta 26,0 mila milioi marko alemanetara 1951n. 1958rako 54,1 mila milioi marko alemanetara igo zen, eta 1960an 75,0 mila milioi marko alemanetara.

Taula 4.7 Kanpo-Merkataritza 1950-1960 Deutsche Mark Bilioietan, Gaur egungo balioan

URTEA	ESPORTAZIOAK	INPORTAZIOAK	ORDAINKETA BALANTZA	ATZERRIKO ERRESERBEN ALDAKETA	TRUKE-TERMI NOAK 1954=100
1950	8.356	10.670	-200	-564	80
1951	14.577	13.084	2.428	2.038	80
1952	16.894	14.732	2.505	2.761	92
1953	18.477	14.848	3.843	3.614	100
1954	21.938	18.046	3.234	2.782	100
1955	25.580	22.339	1.755	1.851	98
1956	30.712	25.079	4.537	5.014	99
1957	35.831	28.509	3.442	5.122	101
1958	36.849	29.380	3.673	3.188	109
1959	41.025	33.141	-2008	-2.204	111
1960	47.849	39.54	6.492	8.007	111

(Monatsberichte Der Deutschen Bundesbank, 1965, 35orr).

1950 urtetik 1951 urtera, Mendebaldeko Alemaniaren esportazio zein inportazio maila asko hazi zen, Koreako Gerra eman zela eta, 1950 urtean inportazioak esportazioak baino

handiagoak ziren, aldiz, 1951 urtean egoera aldatu zen, inportazioak esportazioak baino txikiagoak ziren, ordainketa balantzearen arazoa zuzentzen (Ikusi 4.7 Taula). 50ko hamarkadan zehar esportazioak eta inportazioak progresiboki handitzen joan ziren, urteak igaro ahala, esportazioen eta inportazioen arteko aldea gero eta handiagoa bilakatzen joan zen. 1956 urtean esportazioak 30.712 izatera heldu ziren, eta inportazioak 25.079, ordainketa balantza positiboa eta handitzen jarraituz. 1957 urtean aurreko urteetako joera mantendu zen, ordainketa balantza handitzen jarraituz.

50 hamarkadaren amaieran hazkunderik handiena eman zen, 1954ko truke-terminoak erreferentzia moduan hartuta, hau da, herrialde bateko esportazioen eta inportazioen prezioen bilakaera erlatiboa neurtzeko erabiltzen den terminoa, eta herrialde batetik esportatutako produktuen prezioaren bilakaera adieraz dezakena inportatzen dituen produktuen balioaren arabera kalkulatuta, 1959 eta 1960 urteetan 111 izatera heldu zen, Mendebaldeko Alemaniak esportatutako ondasun eta produktuen balioa inportatutakoa balioa baino handiagoa zen, oso onuragarria zena beraren ekonomiarentzat, inportatzen zituen produktuengatik gutxiago ordaindu behar zuelako adieraziz. Gainera, 1960 urtean lortutako erreserbak atzerriko dibisetan 8.007 izatera heldu ziren Markoen balioa matendu ahal izateko lagungarria izan zitekeena. Urte berean, esportazioak 47.849 eta inportazioak 39.574 izatera heldu ziren, ordainketa balantza 6.492 izanez.

Mendebaldeko Alemaniak 50 hamarkadan zehar herrialde boteretsua bilakatu zen, 60 hamarkadan zehar antzeko bilakaera izan zuen, esportazioen, inportazioen, atzerriko dibisen eta truke terminoen hazkunde konstantea izanez. Horren ondorioz, Europako zein mundu mailako herrialde askok Mendebaldeko Alemaniak jarraituko bilakaera eta hartutako erabakiak eredu bezala hartu zuten.


Mendebaldeko Alemaniaren produkzio-gaitasunak zabaltzeko eta modernizatzeko beharrak eragin zuen enpresetan ekipoetan inbertitzea, eta hori, neurri handi batean, politika publikoak bultzatu zuen. Gobernuak eginkizun garrantzitsua izan zuen errepideak eta eraikin publikoak eraikitzeko zuzeneko inbertsioekin, era berean, gobernu inbertsio handia egin zuen biztanleriarentzat, etxebizitza ugari eraikiz biztanleriaren ongizate maila hobetzeko helburuarekin.

Jarduera ekonomikoaren hedapen-prozesuan eskulan inaktiboa xurgatu ahal izan zen bitartean, jarduera ekonomikoaren hedapena lor zitekeen, prezioen maila konstante mantenduz. Urte batzuetan zehar, bazirudien Mendebaldeko Alemaniako moneta-politikak arrakasta handiagoa zuela prezioen egonkortasunari eusteko beste herrialde batzuetakoa baino. Hala ere, Mendebaldeko Alemaniaren hazkundera ez zen moneta-politikan soilik oinarritu. Eskulanaren ugartitasunak, neurri handi batean Ekialdeko Alemaniatik etengabeko migrazio-fluxuak, soldaten egonkortasun erlatiboak, inbertsio berriei lotutako produktibitatearen hazkundera azkarrak eta kontsumitzaileen gastu-maila orekatua, eragin handia izan zuten prezioen egonkortasun horretan eta Mendebaldeko Alemaniako ekonomiaren hedapen indartsuan.

E. Produktibitatea eta enplegua handitzea

Gerra arteko urteetan, Estatu Batuen (teknologian aitzindaria zen herrialdea) eta gainerako herrialde garatuaren arteko produkzio-mailen arteko aldea handitu zen, hala ere, Bigarren Mundu Gerraren amaieran aukera handiak zabaldu ziren. Estatu Batuetako langileko produktibitatea Europako herrialdeen bikoitza zen 1913an (Ikusi 4.8 Grafikoa). Bigarren Mundu Gerra amaitzean, desberdintasun horiek are handiagoak ziren, eta Europako eta Japoniako herrialdeen batez besteko produktibitatea Estatu Batuen % 35 zen. Hala ere, 50eko eta 60ko hamarkadetan, Europako herrialdeen ekonomiak azkar eta modu emankorrean berreskuratu ziren, mendearen lehen erdian erabili ezin izan ziren aukerak aprobetxatuz (Palafox et al., 1999).

Grafikoa 4.8 Produktibitatea langileko (1913-1982) (Estatu Batuak=100)



(Palafox et al., 1999, 351orr.; Maddison, 1995).

Gerraosteko Mendebaldeko Alemaniak bizi izandako “mirari ekonomikoa” izenekoan, 1950eko hamarkadatik 1970eko hamarkada bitartean iraun zuena gutxi gorabehera, produktibitatea nabarmen handitu zen. Hazkunde hori, neurri handi batean, orain arte azaldutako faktoreen konbinaketan ondorioz eman zen.

Lehenengo eta behin, Mendebaldeko Alemaniak kanpoaldetik jasotako diru-laguntzei esker sektore ezberdinetako teknologia aurreratuenetan inbertitzea ahalbidetu zuen, laguntza horien zati bat giza kapitalaren zuzkidurak ikertzeko, garatzeko eta hazteko erabili ziren, produkzioaren antolakuntzan aldaketak egin ziren, produkzio masiboko prozedurak erabiliz (Fordismoa eta Taylorismoa) Eropako industria “Amerikatzea” eragin zuena (Barciela, 2013). Era berean, jasotako diru laguntzei esker, are gehiago inbertitu ahal izan zen biztanleriaren heziketa mailan, nahiz eta jadanik Europa eta mundu osoko prestatuenetariko biztanleria baitzen. Gainera, Europako herrialdeen arteko oztopo komertzialen desagepenari esker ideia eta teknika berrien transmisioa erraztu egin ziren, sektore berrien garapena eta hobekuntza bizkortuz. Era berean, Volkswagen bezalako konpainia multinazionalak eta komunikazio zerbitzuak hobekuntza handiak izan zituzten garai hartan. Kimikak, elektrizitateak, farmazeutikak eta automobilek izan zuten garapen teknologiko handiena Mendebaldeko Alemanian (Palafox et al., 1999).

Mendebaldeko Alemaniaren aurrerapen teknologikoa eta kapital-inbertsioen hazkundea lan-eskaintzaren hazkunde handiarekin eta egitura-aldaketa garrantzitsuekin batera garatu ziren. 50 hamarkadan zehar nekazaritza sektorea indarra galtzen joan zen, aldiz, sektore industrialak eta zerbitzuen sektorea asko hazi ziren garai hartan. Mendebaldeko Alemaniaren langile bakoitzak BPGri egindako ekarpena oso txikia zen 1950 urtera arte (Estatu Batuekin konparatuz %41a soilik) (Ikusi 4.9 Taula), Mendebaldeko Alemaniaren hazkundea, hein handi batean, langileak egindako esfortzu handia eta lan egindako orduak esker lortu zen (urtero lan ordu gehien egiten zuten enplegatuak ziren)(Ikusi 4.10 Taula).

Taula 4.9 Mendebaldeko Europa eta Estatu Batuak: Produktibitatearen eta Per capita BPGaren Konbergentzia-maila (1950-1973) (Estatu Batuak=100)

	Per Capita BPGaren maila		Lan-orduko BPGaren maila	
	1950	1973	1950	1973
Alemania	41	73	32	62
Erresuma Batua	72	73	63	67
Frantzia	55	79	46	76
Italia	37	64	35	67
Mendebaldeko Europako 12 herrialde	52	73	44	68
Espania	25	52	21	46

(Barciela, 2013, 352orr.; Maddison, 2002, 132 orr.).

Taula 4.10 Urtean Lan Egindako Orduak Enplegatuko

	1950	1973
Mendebaldeko Alemania	2.316	1.804
Erresuma Batua	1.958	1.648
Espania	220	2.150
Frantzia	1.926	1.771
Herbehereak	2.208	1.751
Italia	1.997	1.612
Suedia	1.951	1.571
Suitza	2.144	1.930
Estatu Batuak	1.867	1.717
Japonia	2.166	2.042

(Barciela, 2013, 357orr.; Maddison, 2002, 345 orr.).

Baina 50 eta 60 hamarkadetan zehar egoera hori aldatzen joan zen, aurretik azaldu den moduan, Mendebaldeko Alemaniak produkzioan izandako hobekuntza, biztanleriaren heziketa maila eta produkzioan izandako hazkunde intensiboari esker eman zen, hau da, produkzioa, kalitatea eta enplegua modu eraginkorren eta orekatuan erabiltzearen ondorioz lortutako hazkundera. Garai horretan, langileentzako prestakuntza eta hezkuntza programak ezarri ziren, eta, horiei esker, langileak trebetasun eta ezagutza berriak eskuratu ahal izan zituzten. Horrek lanaren kalitatea hobetu zuen eta langileei eraginkorragoak eta produktiboagoak izaten lagundu zien, horrek, produkzioa etengabe handitzea eragin zuen, 1960an langile bakoitzeko orduko produktibitatea 1950ekoaren %188 izatea lortu zen (Palafox et al., 1999).

Gainera, industriaren berrantolatzearekin eta kudeaketa-teknika berrien erabilerarekin produktibitatea handitzea lortu zen. Mendebaldeko Alemanian, kudeaketa-teknika berriak ezarri ziren, hala nola masa-ekoizpena, kalitatearen kudeaketa eta produkzioaren plangintza, eta horrek eraginkortasuna hobetu eta kostuak murriztu zituen. Industria ere berrantolatu zen eraginkorragoa izan zedin, eta beharrezkoak ez ziren prozesu asko kendu ziren.

Halaber, Mendebaldeko Alemaniak immigrazio kopuru handiak jaso zituen 50 eta 60 hamarkadetan zehar, neurri handi batean Ekialdeko herrialdeetatik; horri esker, eskulana nabarmen handitu zen herrialdean. Hezkuntza-aurrerapenei eta gizarte aurrerapenei esker, emakumeen proportzioa handitu egin zen lan-indarrean, eta horrek ondorio sozial handiak izan zituen.

Produktibitate handiagoa eta ekoizpen-faktoreen hazkundera izan ziren, besteak beste, produkzioaren hazkunderaren arrazoiak. Ondasun berriak (autoak, etxetresna elektrikoak) merkatura iritsi ziren, lehen inoiz ezagutu ez zen erritmo biziagoan ekoitziak. Produkzio handi horri eusteko eta produktu berriak erosten jarraitzeko, kontsumitzaileak diru-sarrera handiagoak zituzten. Hala, sozietate kontsumitzailea sortu zen Mendebaldeko Alemanian, langileen produktibitatea handitzearen ondorioz soldatak handitu zirelako. Soldata-mailak 1950 eta 1973 artean boskoiztu ziren. Kontsumo masiboak produkzioaren hazkundera indartu zuen, eskalako ekonomien erabilera sustatu baitzuen, kontsumoaren igoerak eta produkzioaren estandarizazioak lagunduta (Palafox et al., 1999).

Urrezko aroa urrezkoa izan zen Mendebaldeko Alemaniaren enpleguaren ikuspuntutik ere, Alemaniako gobernua hazkunde ekonomikoa lortzeko helburuarekin batera, enplegu bete lortzea zegoen ere, ongizate estatuaren oinarritzko helburuetan sartzen zela eta. Enplegatu kopurua zein biztanleria aktiboa handitu egin ziren nabarmenki herrialde garatuetan, Mendebaldeko Alemaniaren kasua harrigarria izan zen, 1950 urtean 28,7 milioi enplegatu-kopuru izatetik 1973 urtean 35,5 milioi enplegatu izatera heldu zelako (Barciela, 2013).

F. Populazioa, Migrazioa eta Lan merkatua

Aurreko ataletan azaldu den moduan, Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren milioika pertsona lekualdatu ziren, batez ere ekialdeko herrialdeetatik mendebaldeko herrialdeetara, eragin komunistaren menpean zeuden herrialdeetatik ihes egiten, bizitza hobeto baten bila.

Mendebaldeko Alemaniaren kasuan, behin herrialdea bitan banandu zenean, immigrazio kopururik handiena Ekialdeko Alemaniatik jaso zuen. Denborarekin faktore horrek

Mendebaldeko Alemaniaren garapena erraztu zuen, produkzio faktoreetan izandako eskaintzaren malgutasuna, ekonomiaren egitura aldaketek, eta nekazaritza sektorean izandako garapen teknologikoari esker ahalbidetu zuen lan indarraren askatasunak, 1950etik aurrera industria sektorean eta zerbitzuen sektorean lan indar gehiago erabiltzea erraztu zuena (Barciela, 2013).

Mendebaldeko Europak 10 miloi immigrante inguru hartu zituen gerra ondoren, eta horietatik Mendebaldeko Alemaniak 7 milioi immigrante (Ikusi 4.11 Taula), 1961ean Berlingo Harresia eraiki zen arte, Mendebaldeko Alemaniak inmigrazio uholde bat jaso zuen Ekialdeko Alemaniatik, Poloniatik eta Txekoslovakiatik. 1973 urterako Mendebaldeko Alemaniaren biztanleria aktiboaren %10,9 atzerritarrak ziren. Lan indarraren hazkundeari bultzatu zion beste faktore bat, emakumeak soldatapeko lanetara sartzea izan zen (Barciela, 2013).

Beraz, Mendebaldeko Alemaniaren industria garapenerako esku-lana handitzea oso onuragarria izan zen, normalean, immigranteek lan esfortzu handia egiteko soldata ez oso handien truke prest zeundelako.

Taula 4.11 MIGRAZIO GARBIA: MENDEBALDEKO EUROPA, JAPONIA ETA EUROPAR JATORRIKO IMMIGRAZIOA HARTUTAKO HERRIALDEAK

	1950-1973
Mendebaldeko Alemania	7.070
Erresuma Batua	-605
Frantzia	3.630
Italia	-2.139
Mendebaldeko Europa Guztira	9.381
Japonia	-72
Australia	2.033
Zelanda Berria	247
Estatu Batuak	8.257
Kanada	2.126


Europar Jatorriko Immigrazioa hartutako herrialdeak guztira	12.663
--	--------

(Barciela, 2013, 364.; Maddison, 2002, 128 orr.).

Oharra: (milakoetan: zeinu negatiboak emigratutakoak esan nahi du)

Laburbilduz, 50 eta 60 hamarkadetan zehar Mendebaldeko Alemaniaren gobernuak hartutako erabaki politiko, ekonomiko eta sozialei esker, sektoreen berreantolaketari esker (sektore idustriala eta zerbitzu sektorea irabazitako indarra), esportazio mailen eta atzerrian gauzatutako salmenten hazkundeari esker, biztanleriaren heziketa maila altua eta immigrazio maila altuari esker, Mendebaldeko Alemaniaren enpresa handien eta berrien garapena (automobilgintza, kimika, farmazeutika, etab) eta lan egiteko eraren aldatetari esker, inoiz aurretik ikusitako hankunde handienetarikoa lortu zuen Mendebaldeko Alemaniak.

Grafikoa 4.12 Per Kapita BPGaren urteko batez besteko hazkunde-tasa 1950-1960 (%)



(Eichengreen, 2013, 91orr.; Maddison, 2001.).

Oharra: BPGa pertsona bakoitzeko 1990 urteko dolarretan adierazita dago.

Mendebaldeko Alemaniaren BPG izandako hazkundera, pertsona bakoitzeko, 1950-1960 epaldian, Europako beste herrialdeekin alderatuz, argi geratzen da Mendebaldeko Alemaniak hazkunderik handiena lortu izan zuela garai horretan, urtero batez beste %7 inguruko hazkunderarekin (Ikusi 4.12 Grafikoa). Adibidez, Britaina handiak, Belgikak edo Danikmarkak epealdi bereberan lortutako hazkunderaren hirukoitza lortu zuen, Austria eta

Italia izan ziren zifra horretara hurbildu ziren bakarrak, %6 eta %5,5 inguruko hazkundera lortuz urtero.

Taula 4.13 Mendebaldeko Alemaniaren datu Makroekonomikoak 1950-1960

	BPG HAZKUNDEA %	LANGABEZIA -TASA %	POPULAZIOA (1.000)	SOLDATAK	PREZIOAK	SOLDATEN ALDAKETA ERREALA %
1950	-	11	50,958	136	26.4	-
1951	9.7	10.4	51,435	153	28.4	12.24
1952	9.3	9.5	51,864	167	29	9.36
1953	8.9	8.4	52,454	176	28.5	5.38
1954	7.8	7.6	52,943	180	28.6	2.27
1955	12.1	5.6	53,518	193	29	7.01
1956	7.7	4.4	53,340	209	29.8	8.14
1957	6.1	3.7	54,719	231	31.1	4.97
1958	4.5	3.7	54,719	244	31.3	5.51
1959	7.9	2.6	55,257	244	31.3	5.51
1960	8.6	1.3	55,958	264	31.8	8.00

(Abelshauer., 1975, 43 orr.; Statistisches Bundesamt).

Oharrak: BPG erreferentzia modura (2000 urtea=100); Soldatak gordinak eta hilabetekoak gaur egungo Eurotan; Prezioak (1995=100)

Mendebaldeko Alemaniaren 50 hamarkadako datu makroekonomikoak zehatzago aztertuz, honek bizi izandako hazkundera hobeto ulertzen lagundu ahal digu. 1950eko hamarkadan zehar, Mendebaldeko Alemaniaren BPG errealaren urtero batez beste % 8,2 inguruko hazkundera izan zuen, era berean, pertsona bakoitzeko BPGa %7 inguruko hazkundera izan zuen (ikusi 4.13 Taula).

Nahiz eta populazioa etengabe hazten jarraitu izatea, 1950 urtetik 1960 urtera populazioa 5 milio pertsonetan hazi izan zen, zati handi batean immigrazio mala altuengatik, langabezia tasa, urteak igaro ahala murrizten joan zen, ia ia desagertu arte. 1950 urtean, langabezia tasa

%11 zen, aldiz, 1960 urtean %1,3 izatera heldu zen (ikusi 4.13 Taula). Horixe zen, hain zuzen, hamarkada hartan bizi izan zen garai onaren isla, eta 60 hamarkadan zehar ibilbide horretatik jarraitu zuen.

Taula 4.14 Herrialde kapitalisten NPG-aren bilakaera 50ko hamarkadan

HERRIALDEA	Batez Besteko NPG hazkundera 1949-1954	Batez Besteko NPG hazkundera 1954-1959
Mendebaldeko Alemania	8.4	6.6
Austria	5.7	5.7
Italia	6.4	5.7
Frantzia	4.8	4.1
Belgika	3.7	2.5
Britaina Handia	2.7	2.3
Danimarka	3.7	3.4
Suitza	5.7	4.6
Finlandia	5.3	3.5
Herbehereak	4.9	4.1
Estatu Batuak	3.6	3.3

(Abelshausen., 1975, 52 orr.; Statistisches Bundesamt).

Mendebaldeko Alemaniak 50 hamarkadan zehar bizi izandako hazkunde liluragarria testuinguruan jartzeko, Mendebaldeko Europako herrialdeek garai berean NPGan izan zuten hazkundearekin konparatu daiteke. NPGa herrialdeen egoera ekonomikoa aztertzeko erabiltzen den neurria da, herrialde bateko biztanleek denboraldi batean sortutako azken ondasun eta zerbitzuen balio osoaren neurria da. NPGak barne hartzen du herrialde bateko herritarren eta enpresen ondasun eta zerbitzuen ekoizpena, ekoizpena beren lurraldearen barruan nahiz kanpoan izan. Beraz, herrialdearen herritarrek edo enpresek balioa non sortzen duten ez du axolarik, baina kanpoan uzten du atzerriko enpresek herrialdearen barruan egindako ekoizpena (Abelshausen, 1975). 1949-1954 epealdian, Mendebaldeko Alemaniaren NPGa, batez beste, %8,4ko hazkundera izan zuen (Ikusi 4.14 Taula). Alabaina, mendebaldeko herrialdeen artean bigarren hazkunde handiena lortu zuen herrialdea Italia izan zen, batez besteko %6,4ko hazkundearekin. Estatu Batuak %3,6, Frantzia %4,8, Britaina Handia %2,7 edo Herbehereak %4,9 oso urrun geratu ziren Mendebaldeko Alemaniaren hazkundearekin alderatuz. 1954-1959 epealdian Mendebaldeko Alemaniak NPGan izandako hazkundera, hain

handia ez izan arren, batez beste, %6,6ko hazkundera lortu zuen, Europako herrialdeekin konparatuz handiena izaten jarraitu zena (Abelshauser, 1975).

Taula 4.15 Mendebaldeko Alemaniaren datu Makroekonomikoak 1960-1970

	BPG HAZKUNDE A %	LANGABEZI A-TASA %	POPULAZIO A (1.000)	SOLDATAK	PREZIOAK	SOLDATEN ALDAKETA ERREALA %
1960	8.6	1.3	55,958	264	31.8	8.00
1961	4.6	0.8	56,589	293	32.6	10.7
1962	4.7	0.7	57,247	322	32.5	9.6
1963	2.8	0.8	57,865	347	34.5	7.6
1964	6.7	0.8	58,587	380	35.3	9.2
1965	5.4	0.7	59,297	418	36.5	9.7
1966	2.8	0.7	59,793	442	37.8	5.6
1967	-0.3	2.1	59,948	440	38.4	-0.5
1968	5.5	1.5	60,463	467	38.8	6.0
1969	7.5	0.9	61,195	525	39.6	12.0
1970	3.0	0.7	61,001	591	40.9	12.0

(Abelshauser., 1975, 71 orr.; Statistisches Bundesamt).

Oharrak: BPG erreferentzia modura (2000 urtea=100); Soldatak gordinak eta hilabetekoak gaur egungo Eurotan; Prezioak (1995=100)

Mendebaldeko Alemaniaren ibilaldia 1960 hamarkadan zehar, 1950 hamarkadan bizi izandakoaren antzekoa izan zen, hazkundera iraunkorreko eta etengabeko epealdia izanez. Mendebaldeko Alemaniaren BPGa 60 hamarkadan zehar, batez beste, urtero %5,1 inguruko hazkundera izan zuen (Ikusi 4.14 Taula).

Langabezia oraindik gehiago murriztea lortu zen, %0 eta %1 inguriko mailetaraino. Biztanleriari dagokionez, 1960tik 1970era 5 milioietan handitu zen berriro (Ikusi 4.14 Taula), immigrazio mugimendu eta biztanleriaren ongizate mailaren hobekuntzaren ondorioz, aukera ematen ziena familiei seme-alaba gehiago izateko.

Soldatak ia ia hirukoiztu egin ziren epealdi horretan, 1960an 264 izatekik 1970ean 591 izatera heldu ziren, eta aurreko epealdian bezala prezioak ez ziren hainbeste hazi (Ikusi 4.14 Taula). Batez beste, hamarkada horretan zehar soldatak prezioak baino %9 gehiago hazi ziren, biztanleriarentzat oso onuragarria izan zena, beraien eskuratze-ahalmena handitu egin zelako, produktu eta zerbitzu berriak kontsumitzeko ahalmena bereganatuz. Eta horrek, aldi berean, Mendebaldeko Alemaniaren tertziarizazio prozesua aurrera eramateko lagungarria izan zen.

V. Alemaniar mirari ekonomikoaren eragin soziala

Mendebaldeko Alemanian aplikatutako neurri eta erabaki politikoak ez zuten soilik eragin ekonomia erritmo errekorrean haztea 50eko eta 60ko hamarkadetan zehar, “Alemaniar miraria” bezala ezagutzen dena eragin sozialak izan zituen baita. Mendebaldeko Alemanian politikari Ordoliberalak aurrera eramandako ongizate estatuaren filosofiak, biztalleriaren bizi-maila hobetzea eta gizartean aldaketa oparoak eragin zituen.

A. Herritarren ongizatea areagotzea eta bizi-kalitatea hobetzea

Lehenik eta behin, Mendebaldeko Alemaniaren hazkunde ekonomikoak biztanleriaren bizi-kalitatea hobetzea ekarri zuen. Goraldian zegoen ekonomiak lanpostuak eman zituen, langabezia nabarmenki murriztuz, eta berarekin batera diru-sarrerak handitu ziren, biztanleriaren erosmen ahalmena handituz; horri esker, pertsonak ondasun eta zerbitzu gehiago erosi ahal izan zituzten eta, oro har, bizi-maila hobetu. Era berean, herritarrak hobeto elikatu ahal izan ziren, eta arropa gehiago erosi ahal izan zuten (Nicholls, 1994).

1950-1960 epealdian, biztanleriaren hileko diru-sarrera gordina aztertuz, gaur egungo euroak erreferentzia modura erabiliz, batez beste, soldatak bikoiztu egin ziren hamar urteetan, 136

euro hilabetero lortzetik, 264 euro hilabetero lortzera pasatuz (ikusi 4.13 Taula). Aldiz, prezioak aztertuz, 1995ko kontsumorako prezioen indizea erreferentzia modura, ez ziren hainbeste hazi, 1950 urtean 26,4 izatetik 1960 urtean 31,8 izatera pasatu ziren. Horren ondorioz, biztanleriaren soldata errealean aldaketa handia izan zen, 1950-1960 epealdian guztira %7,5eko hazkundea lortu zen soldata errealean, biztanleriaren erosteketa ahalmena nabarmenki handitu zuena eta kontsumoa hazten jarraitzea eragin zuena.

1960-1970 epealdian, soldatak ia ia hirukoiztu egin ziren epealdi horretan, 1960an 264 izatekik 1970ean 591 izatera heldu ziren, eta aurreko epealdian bezala prezioak ez ziren hainbeste hazi (Ikusi 4.14 Taula). Batez beste, hamarkada horretan zehar soldatak prezioak baino %9 gehiago hazi ziren, biztanleriarentzat oso onuragarria izan zena, beraien eskuratze-ahalmena handitu egin zelako, produktu eta zerbitzu berriak kontsumitzeko ahalmena bereganatuz. Eta horrek, aldi berean, Mendebaldeko Alemaniaren tertziarizazio prozesua aurrera eramateko lagungarria izan zen.

Biztanleriaren erosmen ahalmenaren hazkundearekin, klase ertain berri bat sortu zen Alemaniako gizartean. Langile askok bizi-kalitate hobea lortu ahal izan zuten, eta etxebizitzan, automobilen eta bestelako ondasunen jabe bihurtu. Etxetresna elektrikoen erosketa asko handitu zen, adibidez, hozkailuak, telebistak edo garbigailuak. Gailu berri horiei esker, emakume asko etxetik kanpo lan egiten hasteko aukera izan zuten (Barciela, 2013). Mendebaldeko Alemaniaren biztanleria izandako oparotasun aldiaren eta erosketa ahalmenaren hazkundearen isla, automobilen eta telebisten kopuru mailaren hazkundearekin zetorren. 1950 urtean, Mendebaldeko Alemaniak 13 auto zituen mila biztanleko (Ikusi Taula), 1970 urtean, aldiz, 227 auto zituen. Haatik, Ekialdeko Alemaniaren biztanleria ez zuen izan horrelako bizi mailaren hobekuntza, 1970 urtean soilik 73 auto zituen mila biztanleko. 1970 urterako, Mendebaldeko Alemaniaren biztanleria Europako gizarte garatuenen eta bizi maila altuenetarikoen artean zegoen.

Taula 5.1 AUTOMOBILAREN HEDAPENA (ZENBAT UNITATE MILA BIZTANLEKO)

	1950	1970
FRANTZIA	37	252
MENDEBALDEKO ALEMANIA	13	227
EKIALDEKO ALEMANIA		73
SUEDIA	36	285
ESPAINIA	3	70
HERBEHEREAK	14	192
ERRESUMA BATUA	46	209
GREZIA	1	26
PORTUGAL	7	60
ITALIA	7	192

(Barciela, 2013, 357.; Carreras, 2003, 315-317 orr.).

Klase ertain berri horrek Alemaniako politikan eta kulturaren eragina izan zuen, herritar berri horietako asko aurreko belaunaldiak baino liberalagoak baitziren. Mendebaldeko hirritarren aldaketa handienetarikoa aisialdia handitzea izan zen. Eskola urteak gehitu joan ziren eta erretiro adina aurreratzen joan izan zen. Era berean, opor egunak luzatuz joan ziren denborarekin, astean bost eguneko lan egunak orokortuz. Aurreko kapituluan azaldu den moduan Mendebaldeko Alemaniaren produktibitatearen hazkunderari esker langile bakoitzeko lan orduak murriztea lortu zen, eta horrek lagundu zuen masa turismoa garatzen (Barciela, 2013).

Bukatzeko, Mendebaldeko Alemanien gobernuak ezarritako gizarte segurantzari esker, hezkuntza eta osasun zerbitzuak biztanleria osoaren esku jartzea lortu zen, herritarren heziketa mailaren garapenerako erabakigarria izan zena (Barciela, 2013).

Oro har, Alemaniako mirari ekonomikoak eragin nabarmena izan zuen gizartean, biztanleria bizimodu erosoagoa eta aurreratuagoa lortuz.

B. Alemaniaren lidergoa Europan eta munduan

Mendebaldeko Alemaniak 60 hamarkadan zehar potentzia bat bilakatzea lortu zuen, 1960 hamarkadan mundu osoko esportazioen %10a berarenak izatea lortu zuen. Bere ekonomia eta erreserben sendotasunak markoaren balioa berregokitzera eraman zuen, eta ondorioz beraren botere ekonomikoa beste herrialdeena baino handiagoa bihurtu zen. Gainera, produkzioa eta industria etengabe hazten jarraitu ziren (Simón,1990).

Alemanian enpresa-lidergoa funtsezkoa izan zen herrialdearen arrakasta ekonomikorako. Mendebaldeko Alemaniako enpresa askok kalitate eta eraginkortasun filosofia bat hartu zuten, "made in Germany" izeneko, eredu bilakatu izan zena oraindik garapen-bidean zeuden beste herrialde askorentzat. Alemaniako enpresak ikerketara eta garapenera bideratu ziren, eta horrek lehiari abantaila teknologiko bat atxikitze aukera eman zien (Simón,1990).

VI. Ondorioak

Alemaniako ekonomia, beste herrialde kapitalista batzuen baino gaitasun handiagoa izan zuen hazkunde-maila handiari eusteko epe luzeago baten zehar, Mendebaldeko Alemaniak bizi izandako susperraldi eta berreraikuntza prozesua aurrekaririk gabeko gertaera izan zen; horrek iradokitzen du Mendebaldeko Alemanian hartutako erabaki politiko eta estrategikoak bereziki eraginkorrak izan zirela epe luzeko hazkunde ekonomikoa sustatzeko. Herrialde kapitalistak izandako hazkunde ekonomikoa BPGaren bitartez konparatzen baditugu, argi geratzen da Mendebaldeko Alemaniak japoniarekin batera hazkunde handiena lortu zutela.

Taula 4.16 HERNIALDE KAPITALISTEN HAZKUNDE EKONOMIKOA (1950=100)

	BPG		BPG p.b		BPG HAZKUNDEA			BPG p.b HAZKUNDEA		
	1960	1973	1960	1973	1950-60	1960-73	1950-73	1950-60	1960-73	1950-73
M. Alemania	245,1	463,2	194,1	302,8	8,2	4,6	5,7	7,0	4,5	5,53
Austria	178,7	331,6	175,9	303,1	5,4	4,5	5,1	5,3	4,0	4,7
Belgika	134,3	251,1	126,8	222,7	2,7	4,6	3,9	2,2	3,3	3,0
Danimarka	136,6	236,9	127,3	201,5	2,9	4,0	3,7	2,2	3,3	3,0
Estatu Batuak	137,7	227,9	116,1	163,8	3,0	3,7	3,5	1,4	2,5	2,1
Finlandia	161,9	303,4	146,5	260,7	4,5	4,6	4,7	3,5	4,2	4,1
Frantzia	156,3	310	143,1	248,8	4,1	5	4,8	3,3	4	3,9
Erresuma Batua	132,6	198,7	127,6	178	2,6	2,9	2,9	2,2	2,4	2,4
Herbehereak	157	289,9	138,2	218,2	4,2	4,5	4,5	3	3,3	3,3
Italia	180	353,4	168,9	303,9	5,5	4,9	5,4	4,9	4,3	4,7
Japonia	233	767,8	207,1	585,8	8,6	8,9	8,9	6,8	7,7	7,3
Noruega	144,7	249,7	131,8	205,8	3,4	4	3,9	2,5	3,2	3,1
Suedia	135,5	245,7	128,9	211,8	2,9	4,2	3,8	2,3	3,6	3,2
Suitza	157	275,6	137,4	200,8	4,2	4,1	4,3	2,9	2,7	2,9

(Palafox et al., 1999, 350orr.; Maddison, 1991).

1950-1960 epealdian Mendebaldeko Alemaniak, urtero BPGaren %8,2 inguru lortutako hazkundera, gainerako herrialdeek garai berberean lortutako hazkunderaren ia ia bikoitza zen (Ikusi 4.16 Taula), soilik Japoniaren hazkundera handiagoa izan zen, urtero %8,6 hazkundera lortu zuena. 1960-1970 epealdian, nahiz eta Mendebaldeko Alemaniaren BPGaren hazkundera moteldu izatea, bigarren hazkunderik handiena lortu zuen, urtero %5,1 hazkundera izanez, baina Japoniaren atzetik, urtero %8,9 hazi zena.

BPGa pertsona bakoitzeko aztertuz, bi epealdietan antzeko egoera eman zen, Mendebaldeko Alemania eta Japonia izan ziren aitzindariak. 1950-1960 epealdian, Mendebaldeko Alemaniaren eta Japoniaren BPGa pertsona bakoitzeko urtero %7 inguru hazi ziren, gainerako herrialde kapitalistak baino hazkunde azkarragoa izan zena, adibidez, Frantzia urtero %3,3ko hazkundera izan zuen. 1960-1973 epealdian, Mendebaldeko Alemaniak urtero batez beste BPGan lortutako hazkundera pertsona bakoitzeko %4,5 ingurukoa izan zen, hazkunde handienetarikoa jarraitu izanez, soilik Japoniaren atzetik %7,7 urteroko hazkundera mantendu zuena.

Guztira urrezko aroa kontuan hartzen badugu (1950-1973), hazkunde handiena izan zuten herrialdeak Mendebaldeko Alemania eta Japonia izan ziren berriro, BPGaren % 5,7 eta %8,9 urteroko hazkundera lortuz.

Hitz gutxitan, "Alemaniar miraria" bezala ezagutzen zaionari, ez zen inolako miraririk izan, baizik eta egoera zailetan, diziplina handiarekin eta oso ondo prestatuta zegoen gizarte oso baten lan gogorraren ondorioa, eta atzerritik lan egiteko prest etorritako hainbat jendearen ahalegina, gogoratu behar da mendebaldeko alemaniak herrialde kapitalisten artean laugarren biztanleria prestatuena zuela, eta guztira urrezko aroan zehar Mendebaldeko Alemaniak 7 milioi immigrante inguru izan zituela, gainerako herrialde kapitalistekiko abantaila handia suposatu zuena. Hezkuntzaren eta prestakuntzaren papera oinarrizkoa izan zen, horri esker, gaitasun handiko lan-indar espezializatua sortu zen, funtsezkoa izan zena Alemaniako ekonomiaren lehiakortasuna gailendu izateko gainerako herrialde kapitalistekiko.

Erabakigarria izan zen beste faktore bat, estatu hartutako papera izan zen, politikari ordoliberalak hartu beharreko erabakiak momentu egokienetan eta neurri onuragarrienak hartu zituzten, beraien artean, moneta erreforma non Reichsmark zaharrak Deutschmark berriaengatik aldatzea erabaki zen, inflazioa kontrolpean mantentzea eragin zuena. Era berean, estatuak, Mendebaldeko Alemaniako ekonomian funtsezko eginkizuna hartu zuen, hazkunde ekonomikoa eta funtsezko sektoreetako inbertsioa sustatzen zuten politikak sortuz, eta politika ekonomiko berritzaileak ezarriz, hala nola, merkataritzaren liberalizazioa, muga-zergen murrizketa, moneta-erreforma eta atzerriko inbertsioaren sustapena.

Ezinbesteko beste faktore bat, funtsezko sektoreen hazkundera eta modernizazioa izan zen, hala nola nekazaritza, energia eta industria-ekoizpena, eta horri esker, Mendebaldeko Alemaniak produktibitatea handitu eta produktuen kalitatea hobetu zuen, “made in Germany” terminoa kalitate altuko produktuekin lotuz, mundu mailan ezaguna bihurtzeko lagunduz, herrialde kapitalisten artean nabarmenduz. Horri esker, esportazioen hedapena eman zen, Mendebaldeko Alemaniari merkatu berriak lortzea eta atzerrian zuen presentzia areagotzea ahalbidetu ziona, hazkunde iraunkorra jarraitu izaten ahalbidetu ziona.

Era berean, hamarkada horietan zehar Mendebaldeko Alemaniaren gizarteak garapen handia izan zuen. Alde batetik, herrialdearen egoera hobetzen joan zenez, biztanleriaren prestakuntza maila handitzen eta hobetzen joan zen, bestetik, emakumeek lan mundura barneratzen hasi ziren, eta berarekin batera eskulan maila handitu zen. Gainera, Mendebaldeko Alemanian ongizate estatua lortzeko helburuarekin jarraituko politikari esker, herritarren ongizatea areagotzea eta bizi-kalitatea hobetzea eman zen, adibidez, zerbitzu publikoetan gobernuak diru gehiago inbertitu zuen, eta horrek enplegu berria sortzea eta biztanleriaren ongizatea areagotzea eta bizi-kalitatea hobetzea ekarri zuen, osasun publikoa edo turismoa handituz. Horri esker, Mendebaldeko Alemaniak gainerako herrialdeekiko abantaila lortzea ekarri zuen, beraren biztanleria bizi maila hobetuz zuelako, hobeto prestatuta zegoelako eta orokorrean jendea pozago zegoen, gobernuaren eta herritarren arteko liskarrak saihesten laguntzen zuena.

Horrez gain, Mendebaldeko Alemaniak urrezko aroan zehar aldaketa globaletara eta teknologia berrietara egokitzeko izan zuen gaitasunari esker, herrialdeak Europan lider ekonomiko izaten jarraitu zuen, horrekin batera, garai horretan sortu berriko multinazional handiak herrialdearen garapena erraztu zuten, adibidez, Volkswagen, Bayer edo Bosch.

Azkenik, baina ez garrantzi gutxiagorekin, gogoratu behar da Bigarren Mundu Gerra amaitzerakoan, bertan aurre egin zien herrialde askoren laguntza, barkamena eta sostengua jaso zuela Mendebaldeko Alemaniak. Adibidez, Estatu Batuetatik jasotako Marshall planen laguntzaren bitartez, eta Europaren garapenerako eta mundu mailan merkataritza garatzeko sortu berriko hainbat erakundeetan parte hartzeko baimena eman ziotela (CECA, EEE, EPU, Erromako Ituna, etab), herrialde kapitalisten arteko merkataritzan Mendebaldeko Alemaniak aitzindaria bihurtzea eragin zuena. Halaber, Bigarren Mundu Gerraren herrialde irabazleek

Mendebaldeko Alemaiari ezarritako gerra isunen erdia inguru barkatzea erabaki zuten, faktore erabakigarria izan zena Mendebaldeko Alemaniaren susperraldirako.

Laburbilduz, Mendebaldeko Alemaniak bizi izandako “mirari ekonomikoa” Bigarren Mundu Gerraren ondoren egoera zailean egon arren, Alemaniari indarberritzen eta hazten lagundu zioten politika, estrategia, laguntza, gizartea eta faktore erabakigarrien multzoen emaitza izan ziren, hala, azkenean mundu mailan potentzia bihurtzea eragin zuten, faktore-multzo hori eman ez ezean, ez litzateke posible izango horrelako hazkunderik lortzea.

VII. Bibliografía

- Abelshausen, W. (1975). *"I. am anfang der wirtschaftswunder"*. Oldenbourg Wissenschaftsverlag.
- Aldcroft, D. (2001). *The European Economy, 1914-2000*. Barcelona. HUROPE.
- Benz, W. (2005). *Deutschland 1945-1949*. Informationen.
- Barciela, C. (2013). Kapitalismoa urrezko aroan (1945-1973). In Comin, F et al. *Munduaren historia ekonomikoa: X.-XX. mendeak* (339 or.). Barcelona. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Braun, H. (1990). *The German Economy in the Twentieth Century*. Routledge Revivals.
- Cameron, R. eta Neal, L.(2005).*Historia económica mundial desde el paleolítico hasta el presente*. Madrid. Alianza.
- Comín, F. (2011). *Historia económica mundial: de los orígenes a la actualidad*. Alianza.
- De León Lázaro, G. (2017). *El milagro Alemán*. Real Centro Universitario San Lorenzo del Escorial.
- Erhard, L. (1982). *Standard Texts on the Social Market Economy: Two Centuries of Discussion*. Horst Friedrich Wünsche.
- Eichengreen, B. (2008). *The European economy since 1945*. Princeton, New Jersey. Princeton University Press.
- Foreman, J. (1995). *Historia económica mundial: relaciones económicas internacionales desde 1850*. Madrid. Pearson Educación.
- Giersch, H., K-H Paqué eta Schmieding, H. (1992, ed. 1994). *The Fading Miracle: Four Decades of Market Economy in Germany*. Cambridge Studies.
- Hardach, K. (1980). *The Political Economy of Germany in the Twentieth Century*. California. University of California press.
- Joric, C. (2020). Lo que se jugaron Truman y Stalin en la Conferencia de Potsdam. *La Vanguardia*.
<https://www.lavanguardia.com/historiayvida/historia-contemporanea/20200802/27162/que-jugaron-truman-stalin-conferencia-potsdam.html>
- Laqueur, W. (1992). *Europe in Our Time, A History 1945-1992*. Penguin Books.

- Miralbell, I. (1996). *La Economía Social de Mercado de Ludwig Erhardt y el futuro del estado de bienestar*.
- Minnerup, G. (1987). *West Germany since the war*. Pearson.
- National Geographic (d.g.). *La conferencia de yalta, el inicio de la guerra fría*. https://historia.nationalgeographic.com.es/a/conferencia-yalta-inicio-guerra-fria_16289
- Nicholls, A. J., (1994). *Freedom with Responsibility: The Social Market Economy in Germany, 1918-1963*. Oxford.
- Palafox, J. et al. (1999). *Curso de historia económica*. Valencia. Tirant Lo Blanch.
- Santander bankia (2022) ¿Qué es el PIB y por qué es importante en la economía?. <https://www.santander.com/es/stories/que-es-el-pib-y-por-que-es-importante-en-la-economia>
- Simón, F. (1990). *Manual de historia económica mundial y de España*. Ramón Areces. Madrid. Centro de estudios Ramón Areces.
- Suárez, M., Melendez, S., Solbes, S. eta Martinez, J. (2005). *Historia económica mundial y de España*. Anroart.
- Wolfgang, F. eta Karl W., (1979) *Planning a Free Economy: Germany 1945-1960*. Mohr Siebeck GmbH & Co. KG.